**KIROLA: MENDIKO ESKI-KOPAN, DEBAGOIENEKOEK HASIERA ONA /10**

**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**





# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko otsailaren 11 — V. urtea • 187. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**HERRIZ HERRI**

**Gaur zabalduko dute Antzuolako haurreskola /7**

**EUGENIO ITURRIOTZ** / IGUALAKO MEDIKUA

*"Antzinatasunik gabe eta negoziatu gabeko baldintzetan bidaltzen gaituzte Osakidetzara"* **/9**

**Goienka2a**

**Debagoieneko berben hiztegia aurkeztuko dute gaur, hilak 11**

**EUROPAKO ITUNA: ERREFERENDUMA HILAREN 20AN**

# Europako galdeketaren kanpaina

Europako Itunaren gaineko kontsulta erreferenduma deitu du Espainiako Gobernuak hilaren 20rako. Eta horren kanpainan gaude hilaren 18ra bitartean. Ezezkoaren aldeko alderdi eta taldeek egin dituzte zenbait ekitaldi, baina bestelako hauteskundeetan baino mugimendu txikiagoa dago. Ikusi egin behar deituta dauden 53.761 debagoiendarretatik zenbatek bozkatzen duten.

Europako Itunak ez du gurean jakin-min handirik piztu, baina kontua da aldaketa garrantzitsuak egiten dituela Europar Batasunaren izate eta jardunean. Aldeko eta aurkakoak horien berri ematen eta herritarren erantzuna pizten saiatu dira. **/4-5**



MARIA AGIRRE

## Txabarri, kooperatiben sortzaileekin

Joan den eguaztenean Arrasaten izan zen Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Aldundiko diputatu nagusia, Arrasateko kooperatibismoaren bultzatzaileei Diputazioak egingo dien errekonozimendu bereziaren berri ematen. Martxoaren 17an izango da hori, eta urrezko plaka eta dominak emango dizkiete bost laguni: argazkian ageri diren Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxeari, eta Jose Mari Arizmendiarrieta, Luis Usatorre eta Jesus Larrañagari. Azken hiru horiek hilda daude, eta familiartekoak joango dira Donostiara saria jasotzera. Gorroñogoitia eta Ormaetxea pozik azaldu ziren sariarekin, baina jende askok merezi duela azpimarratu zuten. **/3**

## Arrasateko Udalak eta Polmetasak hitzarmena egin dute etxeak egiteko

Polmetasa lantegiak eta Arrasateko Udalak eguaztenean sinatu dute hitzarmena. Lantegia lekuz aldatuko da, baina Arrasaten bertan; eta, hala, orain lantegia dagoen lekuan etxebizitzak eraikiko dituzte. Hain justu ere, lantegia udalerrian gera dadin bermatzeko, Uribarri auzoan 13.000 m2-ko lantegi berria eraikiko dute. Era berean, lantegiaren kokalekuan 220 etxebizitza eraikiko dituzte. **/7**





**Makinak alokatu eta saltzen ditugu**
Eraikuntzarako eta obra publikorako

ALKIDEBA
Soluzioak errentan.

Maltzaga bidea – 20590 Soraluze
Tel.: 943 75 15 54 . Faxa: 943 75 00 31

Goitondo industrialdea, 3. pab. 11-2 partzela, 48269 Mallabia – Bizkaia
Tel.: 943 17 13 62 . Faxa: 943 17 14 56

LOIOLA KLINIKA

**BEGIETAKO KLINIKA**
**Begietako mikrokirurgia:**
**Kataratak:** Miopia / Hipermetropia.
**Bitreo-erretinako gaixotasuna:** Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

**Manuel Salaberria** *Mediku oftalmologoa*

**AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91**
**DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79**


**ARRASATE**

## Tranbiaren gaineko erakusketa irekiko du Alvaro Amannek

Alvaro Amann sailburuak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak astelehenean inauguratuko dute Arrasateko udaletxean tranbiaren proiektuaren erakusketa. Proiekturen zehaztasun guztiak izango dira ikusgai. Arrasateko Udaleko ordezkariek ere esku hartuko dute ekitaldian. **/6**


**DEBAGOIENA**/6 • **HERRIZ HERRI**/7 • **IRITZIA**/8 • **KIROLA**/10 • **NON-ZER**/16-17 • **SAILKATUAK**/18 • **ESKELAK**/19 • **DENBORA-PASA**/20 • **TELEBISTA**/22



iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

**Matrikula epea zabalik otsailaren 14tik 25era**

GOIESKOLA

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa



**Ate Irekiak eta Bilera Informatiboak**

| | EGUNA | ORDUA |
|---|---|---|
| LEHEN HEZKUNTZA | | |
| **EZEIZA (Eskoriatza)** | Otsailak 15 | 17:00 aurrera |
| **KURTZEBARRI (Aretxabaleta)** | Otsailak 14 | 18:00 eta 19:00 |
| **SAN MARTIN (Bergara)** | Otsailak 12 | Egunean zehar |
| **ARRASATE HERRI ESKOLA** | Otsailak 15 | 18:00 |
| **ERREKALDE (Oñati)** | Otsailak 19 | 16:00 |
| **ANTZUOLA HERRI ESKOLA** | Otsailak 14ik aurrera | – |
| **ELGETA HERRI ESKOLA** | Otsailak 14tik aurrera | – |
| BIGARREN HEZKUNTZA | | |
| **ARRASTE INSTITUTUA** | Otsailak 21-22 | 18:00 |
| **KURTZEBARRI (Aretxabaleta)** | Otsailak 16 | 18:00 |
| **ZUAZOLA LARRAÑA (Oñati)** | Otsailak 16 | 18:00 |
| **IPINTZA INSTITUTUTA (Bergara)** | Otsailak 16 | 18:30 |

# Kooperatibismoaren sortzaileei harrera egin die Txabarrik

## Martxoaren 17an ekitaldia egingo dute Donostian, Foru Aldundian

MARIA AGIRRE

Arrasateko kooperatibismoa 50 urte betetzear da, eta, urtemuga seinalatu horren harira, Gipuzkoako Foru Aldundiak kooperatibismoaren sortzaileek egindako lana eskertu eta goraipatu egin nahi du. Hori dela eta, martxoaren 17an, Foru Aldundian egingo den ekitaldi berezi batean, Gipuzkoako Urrezko Domina emango diete Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxeari, bizirik dauden kooperatibismoaren bultzatzaileei. Dagoeneko hilda daudenei —Jesus Mari Larrañaga, Luis Usatorre eta Jose Mari Arizmendiarrietari— Gipuzkoako Urrezko Plaka emango diete. Joxe Juan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia espreski Arrasaten izan zen joan den eguaztenean, sari horien berri ematen. “Plakaren eta dominen artean ez dago desberdintasunik, baina, foru arau baten arabera, hilda daudenei plaka ematen diegu eta bizirik daudenei domina. Ohoreak berak izango dira batzuen eta besteendako”. Era berean, Gonzalez de Txabarrik argi utzi nahi izan zuen jasoko duten errekonozimendua oso garrantzitsua dela, eta orain arte meritu handiko pertsonek jaso dutela Gipuzkoan. Iaz, Juan Zelaia oñatiarrak jaso zuen sari hori, Jose Maria Setien eta Iñaki Gabilondorekin batera.



MARIA AGIRRE

Purita Iturbe, Maite Zeziaga, Pureza Arantzabal eta Mari Carmen Galdos, kooperatibismoaren sortzaileen emazte eta alargunak.

Diputatu nagusiak esandakoaren arabera, “harrituta” geratu ziren, Arrasateko kooperatibismoa 50 urte betetzear, oraindik horrelako errekonozimendurik jaso gabe zeudela jakinda. Gipuzkoak asko zor diela, eredugarri direla eta saria ondo baino hobeto merezi dutela aitortu zien. “Beharbada berandu dator, baina ongietorria izan dadila”, esan zuen Gonzalez de Txabarrik.

**SARIA ASKORENA DELA**

Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxeak garbi utzi nahi izan zuten saria ez dagokiela eurei bakarrik: “Lortutakoaren atzetik hainbat kooperatibistaren lana dago”. Era berean, euren emazteek egindako esfortzua nabarmendu nahi izan zuten. Bihotzez egindako aitormena izan zen, Alfonso Gorroñogoitia hunkitu egin baitzen emazteei erreferentzia egiterakoan. Bere emazte Purita Iturberi eta Ormaetxearenari, Maite Zezigari, ez ezik, Larrañagaren alargun Mari Carmen Galdosi eta Usatorrenari, Pureza Arantzabali, eskaini zizkion esker oneko hitzok.

Hori izan zen unerik hunkigarriena, gainontzean eguazteneko ekitaldia xumea izan baitzen. Arrasateko Udaleko osoko bilkuren aretoan Inazio Lakuntza alkatea, sei zinegotzi eta MCCko arduradun batzuk izan ziren, Jesus Catania presidentea, besteak beste. Era berean, alkateak jakinarazi zuen Arrasatek toki berezia eskainiko diela kooperatibismoaren sortzaileei, eta seguruen Garaian izango dela. Gainera, herriaren izenean eskerrak eman zizkien kooperatibismoaren bultzatzaileei.

### JOSE MARIA ORMAETXEA

KOOPERATIBISMOAREN SORTZAILEA

**“Mondragoeko jendea beti egon da lanerako gertu”**

Saria ezustekoa izan da Maria Ormaetxearentzat. Hala ere, garbi utzi nahi izan du meritua ez dela bakar batzuena . Kooperatibismoak jende askoren lanari esker izan duela arrakasta uste du. Ildo horretan, Mondragoen izan ez balitz, kooperatibismoak ez zukeela aurrera egingo iritzi dio. “Mondragoen jende langilea zegoen, dena emateko gertu, eta hori ez da edonon aurkitzen”.

### PUREZA ARANTZABAL

LUIS USATORREREN ALARGUNA

**“Martxoan Donostiara joango gara saria jasotzera”**

Luis Usatorre izan zen Arrasateko kooperatibismoaren sortzaileetariko bat, eta haren alargunak, Pureza Arantzabalek, esan zigunez, pozik daude Donostian emango dieten saria dela eta. “Familiartekoak eta ni neu pozik gaude, eta martxoan Donostiara joango gara Diputazioak egingo digun ekitaldira”. Purezak, baina, argi du saria ez dela bakar batzuena, jende askoren lana dagoela atzetik.

### ALFONSO GORROÑOGOITIA

KOOPERATIBISMOAREN SORTZAILEA

**“Saria garrantzitsua da, eta eskerrak eman nahi ditugu”**

Alfonso Gorroñoitiak Arizmendiarrieta izan zuen gogoan, eta apaizak euren bizitzan topo egin izana “zorte handia” izan zela adierazi zuen jendaurrean egindako hitzaldian. Era berean, Foru Aldundiaren errekonozimendua garrantzitsua dela, eta “harro” daudela gaineratu zuen. Alfonsok ere garbi utzi nahi izan zuen “meritua ez dela bost lagunena bakarrik”.

### JESUS M. ARIZMENDIARRIETA

ARIZMENDIARRIETAREN ILOBA

**“Osabak ez zituen sariak gustuko, lana baino ez zuen”**

Jose Maria Arizmendiarrietaren familiartekoak ordezkatzea egokitu zitzaion apaizaren iloba bati, Jesus Mari Arizmendiarrietari. Ilobak uste duenez, osabak ez zituen sariak gustuko, ez zen errekonozimenduen zale. “Lana baino ez zuen buruan, eta sari hau jasotzea ere ez litzaioke gustatuko. Horrelakoa zen”. Ilobak kontatu zigunez, hil aurreko azken bi urteetan nahikoa harreman izan zuen osabarekin.

CHEVROLET
GIPUZKOA AUTOAK
Otaola Etorbidea, 27 - Eibar - Tel.: 943 20 25 00
Karobi industrialdea z/g - Olaberria - Tel.: 943 88 51 50
w w w . c h e v r o l e t . e s

bitart
Abokatutza eta bitartekaritza
Lege arazoen konponbide labur eta baketsuak
Larraitz Ugarte
Maider Morras
Nafarroa etorbidea 23
ARRASATE
943 71 25 22/23
659 59 71 21

Langile okupatuentzako %100 prestakuntza finantziatuak
Informatika
Disenua
Gestioa
Hizkuntzak
Giza baliabideak
AKADEMIA BASTIDA
Info: 943 79 35 33
formacioncontinuabego@bastida.es

ERREFERENDUMA2005

# Kezka txikia piztu du gurean Europaren gaineko galdeketak

*Europar Itunaren erreferendumaren kanpaina zabalik dago hilaren 18ra bitartean*

LEIRE KORTABARRIA

**Europarendako Konstituzio bat ezartzen duen itunaren proiektua onartzen duzu? Galdera horri erantzuteko, hauteskundera deituta daude 53.761 debagoiendar. 1986az geroztik egiten den lehen erreferenduma izango da.**

Hauteskunde deialdi berezia da otsailaren 20koa. Izan ere, erreferendumeko galderarekin batera, idatzita ez dagoen beste bat ere erantzungo dela: alegia, debagoiendarren Europarekiko kezka handitu ote den eta joan den ekainaren 13ko hauteskundeetako abstentzio altua (%56,3, ibarrean) murriztuko den.

*Euro-termometro* horri begiratu behar badiogu, Debagoienekoak tenperatura baxu samarrak markatzen ditu. Nabarmena da herrietan propaganda kartelak ipintzeko panelak ia hutsik daudela, eta ekitaldi gutxi izan direla. Baiezkoaren aldekoek ez dute ekitaldi publikorik egin; ezezkoa defenditzen dutenek, ordea, bai. Lehenengo multzoan sartzen dira EAJ, PSE eta PP alderdiak; ezetzaren inguruan, EA, Ezker Batua-Berdeak, Aralar, Batasuna eta Zutik-Batzarre. Batasunak herri ekimenak bultzatu ditu ibarreko herrietan, Ezezkoaren Aldeko Ekimena izenarekin. Bestetik, Espainiako Eliza Katolikoak abstentzioa ere egoki dela esan du.

**KONTSULTA BAT BESTERIK EZ**

Hainbatek ez du bere sentitzen otsailaren 20ko kontsulta. Ikerkuntza Sozialen Zentroak jakinarazi du espainiarrek gutxi dakitela Europako Konstituzioaren gainean, baina kontua da kontsultaren beraren nondik norakoak ere ez direla asko zabaldu. Adibidez, erreferenduma kontsulta bat da, hau da, emaitzak ez du Espainiako Gobernuaren jarrera derrigortzen. Europako Ituna Espainiako Gorteek berretsi behar dute, ziurrenik ekainera bitartean. Baina emaitzak eragina izango du Europar Batasuneko beste estatuetan, batez ere erreferenduma egiteko asmoa dutenetan.

Erreferendumeko galdeketa ez da, berez, Europako Konstituzio baten ingurukoa, hori ezartzen duen Itunaren ingurukoa baizik. Galdera euskaraz ere idatzita azalduko da EAEko bozketa orrietan. Itun hori Europar Batasuna osatzen duten 25 estatuetako ordezkariek sinatu zuten urrian, eta ordutik ezkero, estatu bakoitzak bere aldetik berretsi behar du Ituna. Espainia da hori erreferendumaren bidez egingo duen lehena.




LEIRE KORTABARRIA

Kartel gutxi ikusten dira Debagoieneko kaleetan, eta dauden gehien-gehienak ezezkoaren aldekoak dira.

*Ekaineko Europako Hauteskundeetako abstentzioa berriz izango den beldurra dago*

*Itunak aldaketa handiak egiten dizkie Batasunaren barne eta kanpo politikari*

*Debagoieneko 16.000 lagun inguruk erreferendum baten lehenengoz bozkatu ahal izango dute*

**ITUNAREN ZATI GARRANTZITSUENAK**

Erreferendumaren gainean hautesleak gutxi badaki, are gutxiago zabaldu da Konstituzioaren beraren gaineko informazioa eta ikusmina. Hala ere, esan behar da orain arte Europar Batasunaren izaeran eta lan egiteko moduan aldaketa garrantzitsuak sartzen dituela. 448 artikulu ditu Itunak, lau zatitan banatuta: Europar Batasuna zer den eta zein helburu dituen; Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Konstituzioak bere egiten duena; Batasunaren politikak eta lan egiteko modua; eta Ituna zelan berretsi eta berrikus daitekeen.

Aldaketa horietako batzuk honakoak dira: hiritarra garrantzitsuagoa da, eta Europar Justizia Auzitegira jo ahal izango du eskubideak babes diezazkion. Horrez gain, sexuen arteko berdintasuna eta gutxiengoen eskubideen babesak pisu handiagoa hartzen dute.

Ekonomian, Euro multzoko estatuek eurendako politikak onartu ahal izango dituzte. Europako Fiskaltza sortuko da. Enplegu eta ekonomia politikek uztartuta joan beharko dute.

Kanpo politikan daude aldaketa handienetako batzuk, eta horrek piztu du orain arteko eztabaida apurra, izan ere, terrorismo edo krimenari aurre egiteko neurri indartsuagoak daude. Adibidez, Kanpo Ministro bat izango da aurrerantzean; hala nahi duten estatuek bateratutako misioak agindu ahal izango dituzte. Batzuek salatzen dute horrek prebentzio gerrarako atea zabaltzen duela.

Erakundeen funtzioak ere aldatu egiten dira. Europako Parlamentuak legeak egiteko eskumen handiagoa izango du. Europako Kontseiluak presidente bat izango du –ez txandakakoa, orain arte bezala–; bozketa sistemak gehiengo kualifikatua indartzen du; eta estatu bakoitzeko parlamentuak burujabetza handiagoa izango du.

Barne politikan, babes eta inmigrazio politika komuna ezartzen da; defentsarekin jarraituz, estatuen zigor-legeen bat egitea bultzatzen da, eta estatuen arteko elkarlana indartu; giza politikan, solaskide sozialen pisua handitzen da.

SEIN
grupo•taldea
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
OÑATI
Tel.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 25
Faxa: 943 71 22 98
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 20 04



HEMEN BAKARRIK IKUSTEN DA ONENA.
Hemen bakarrik abona zaitezke Digital+era baldintza hauekin:
3 HILABETE ERDI PREZIOAN
IZENEMATE KUOTA 45 €
Antena eta instalazioa DOAN
Zeren zain zaude. Egin zaitez DIGITAL+en abonatu Milar Elkoron. Olarte kalea 1 (Arrasate)
DIGITAL +




GORKA ETXABE

**Zutik alderdiak hilaren 7an aurkeztu zuen bere kanpaina.**

# Kanpaina, gurean

**UDALAK**

- **Zenbait mozio:** Eskoriatzako Udalean atzera bota zuten Europako Itunaren alde alderdi sozialistak aurkeztutako mozioa. EAJk, EAk eta EBk bota zuten atzera. Ostera, Arrasateko Udalean, joan den astean onartu zuen PSE-EEk aurkeztutako mozio bat, Itunaren alde. PPk eta EAJk egin zuten alde sozialistekin batera. Mozioak esaten du balore sozialak merkatu-ekonomiaren gainetik ipintzen dituela Itunak, eta oinarrizko eskubideak bermatu. Bestalde, Elgetako Aralarrek mozioa aurkeztu du hango udalean, eta hori eztabaidatzeko osoko bilkura egitekoak ziren.

**EGIN DIREN EKINTZAK**

- **Eusko Alkartasuna:** EAk mitina egin zuen Arrasaten joan zen barikuan; Unai Ziarretak eta Mikel Irujok hartu zuten parte eta adierazi zuten Itunak gabezia handiak dituela, hala nola, autodeterminazio eskubidea, zerbitzu sozialak, lan eskubideak eta aberastasunaren banaketa.
- **EB-Berdeak:** Debagoieneko EB-Berdeak alderdiko zinegotziek Europar Ituna onartezina dela esan zuten prentsa agerraldian joan zen egubakoitzean. "Itun hau ez da gurea, lehiakortasunaren, kapitalaren eta militarismoaren Europa bultzatzen duelako" esan zuten.
- **Zutik eta Batzarre:** Zutik eta Batzarre alderdiek euren kanpaina aurkeztu berri dute. Itunak alde on baino txar gehiago dituela esan zuten. Gainera, etorkinendako bozka eskubidea ere eskatzen dute.
- **Aralar:** Aralarrek Itunaren aurkako jarrera azaldu zuen prentsaurrekoan joan den eguaztenean. Besteak beste, Itunean gabezia demokratikoa dagoela eta herriak ez dituela errespetatzen azpimarratu zuten.
- **Ezezkoaren Aldeko Ekimena:** Hainbat sektoreko herritarrek osatzen dute Ekimena. Arrasaten, adierazpena irakurri eta atxikimendua eman zioten eguaztenean. Aretxabaletan prentsaurrekoa egin zuten astelehenean. Bergaran ere kartelak jarri, ezezkoaren alde atxikimenduak lortzeko manifestua aurkeztu eta beste ekimen batzuk egin dituzte.
- **Mondrauetarrak:** Mondrauetarrak taldeak *¿La Europa de quién?* Liburua aurkeztu zuten joan den eguaztenean. Liburuaren bi egilek Konstituzioaz eta Europa sozialaz berba egin zuten.
- **Sindikatuak:** ELAk kartelak ipini eta diptikoak banatu zituen hainbat lantegitan. Hiruk ere ezezkoaren aldeko jarrera azaldu du.
- **Itunaren aldekoak:** Ez dituzte ia ekitaldirik egin geurean. Hori bai, EAJren furgoneta ibiltaria harantz eta honantz ibili da egunotan.

**DATOZEN EGUNOTAN**

- **Txotx jaialdia:** *Egin txotx ezezkoaren alde* jaialdia antolatu dute gaurko, egubakoitza, Bergarako San Martin plazan, 18:30ean.
- **Mahai inguruak:** Bergarako Txapa Irratı libreak hilaren 15ean egingo du tertulia, 19:30ean. Indar politiko guztiei egin die gonbitea baina, oraingoz, Aralarrek eta Batasunak bakarrik ziurtatu dute egongo direla. Egun berean, GOITBn, 21:00etan, Batasuneko Antxon Mendizabalek, EAJko Imanol Bolinagak, ELAko Mikel Novalek eta MCCko European Coorporative Group-eko Adrian Zelaiak jardungo dute; azkenik, hau ere hilaren 15ean, 18:30ean, Eskoriatzako HUHEZI fakultatean, mahai ingurua egingo dute Ander Rodriguez (Ezker Batua), Mikel Irujo (EA), Mikel Noval (ELA), Jose Mari Muñoa (EAJ), Aintzane Ezenarro (Aralar), Arlet Apraiz (LAB) eta EHNE, Zutik eta Batasuneko kide banak (izenak konfirmatzeke zeuden), Ikasle Abertzaleen Asanbladak antolatuta.
- **Hitzaldia:** Ezezkoaren Aldeko Ekimenak hitzaldia egingo du hilaren 15ean, Arrasateko kultura etxean, 19:30ean.
- **Ikasle mugimendua:** Mobilizazio eguna deitu du hilaren 17rako.
- **Kale agerraldia Bilbon:** Hilaren 12an, zapatua, 17:00etan, manifestazioa egingo dute Bilbon Euskal Herrian Itunaren aurka agertu diren indar politiko, sindikatu eta eragile sozialek. Autobusak egongo dira ibarretik.

# Erreferendumaren gainean zenbait jakin beharreko eta bitxikeria

ITUNAREN ALDEKOAK

## EAJ, PSE-PSOE eta PP alderdiek aldeko botoa eskatzen dute

**Honako argumentuak ematen dituzte: aurrerapauso interesgarriak ematen ditu lege eta ekonomia alorretan eta Europako erakundeen autonomia indartzen du (EAJ); hiritarren eskubideak, enplegua eta europarren arteko berdintasuna bermatzen ditu (PSE); Europa osatzen dugun nazioen arteko proiektu komuna da eta kultura, hizkuntza eta ideologia mosaiko baten integratzeko aukera da (PP). Oro har, Europa eraikitze bidean aurrerapausoa dela defenditzen dute.**

ITUNAREN AURKAKOAK

## Aralar, EA, Ezker Batua, Batasuna, Zutik eta hainbat giza talde

**Hauxe esaten dute ezezko botoaren aldekoek: ongizate estatuari mugak ipintzen dizkiola eta eskubideak murrizten dituela (Aralar); Europa ekonomikoaren eta sozialaren arteko banaketa handitzen duela (EA); bi alderdi horiek diote ez dituela hizkuntza txikiak eta estaturik gabeko herriak aipatzen. Ezker Batua-Berdeek diote estatu indartsuenen interesak bakarrik defenditzen dituela. Zutik alderdiak dio ez dela herritarren konstituzioa. Bestetik, Herritarren Zerrendak iaz kaleratu zuen *Euskal Herria: Europara begiratzeko modu bat* Itunaren aurkako manifestua.**

ERREFERENDUMAK

## Ibarrekoek lau erreferendumetan parte hartzerik izan dute

**Ibarreko 16.000 lagun ingururendako, lehen erreferenduma izango da hilaren 20koa. Azkena 1986an izan zen. NATOren gaineko kontsultan ezetza izan zen nagusi EAEn (zentsuaren %42,6), eta Nafarroan (%32,9). Espainiako Konstituzioaren erreferendumean baietza nagusitu zen (%31,2 EAEn eta %50,3 Nafarroan); berdin Gernikako Estatutuaren gaineko kontsultan, 1975eko urrian (%53,1). 1976an Erreforma Politikoaren erreferenduma egon zen, baina alderdi politikoak legez kanpo zeuden.**

SALBUESPEN KULTURALA

## Europako hizkuntza eta kultura dibertsitatea babesteko neurriak

**Kanpo politikan, Europar Batasuneko hizkuntza eta kultura ugaritasuna babesteko neurri bat dago, salbuespen kulturala delakoa. Horrek tradizio luzea du Europar Batasunean, eta Konstituzioan eutsi egiten zaio. Horren bidez, zerbitzu kultural eta ikus-entzunezkoen produkzioa eta komertzioa arautzen dira, Europako estatu bakoitzaren eta horien barneko herrien ekoizpena babesteko.**

ATZERRITIK

## Kanpoan bizi diren 638 ibarreko lagunek ere bozka dezakete

**Debagoienean, 53.761 lagunek izango dute otsailaren 20an bozkatzeko eskubidea (guztira, 84 mahai izango dira). Horietatik 638 atzerrian bizi dira, eta aukera dute, hilaren 19ra bitartean, posta bidez bozka bidaltzeko, edo, 13ra bitartean, Espainiako Enbaxadan gauza bera egiteko.**

**Berez, posta bidez bozkatzeko tramiteak egiteko epea hilaren 10ean, eguena, bukatu zen. Botoak hilaren 20an entregatuko dituzte hautes-mahaietan.**

KONSTITUZIOA, ETXEAN

## Testu osoa doan eta euskaraz jasotzeko aukera ematen dute

**Europako Itunaren testu osoa, hitzaurre eta atxikitako deklarazioekin, doan jasotzeko aukera dago 900 22 20 09 telefonora deituta edo *constitucioneuropea@mpr.es* helbidera idatzita. Euskaraz ere eska daiteke. Era berean, Espainiako Gobernuak *www.constitucioneuropea.es* webgunea egin du.**

BERRESPENA

## Aurreikusten da Ituna indarrean sartzea 2006ko azaroan

**Erreferendum bidez berretsiko dute Ituna Txekia, Danimarka, Frantzia, Irlanda, Polonia eta Portugalek. Parlamentuak berretsiko du Austria, Zipre, Estonia, Finlandia, Grezia, Hungaria, Italia, Letonia, Lituania, Malta, Eslovenia eta Suedian. Bi bideak izango dira Irlanda, Luxenburgo, Herbehereak, Espainia eta Erresuma Batuan. Erreferenduma egin edo ez erabakitzeke dute Alemania, Belgika eta Eslovakiak. Berrespen guztiak 2006ko azarorako batu, eta Ituna orduan indarrean jartzea espero da.**



GOIENKARIA

**Debagoienean 84 hautes-mahai ipiniko dituzte bozketa egunean.**

# Oñatiko hiru auzoko nekazal eremuak indartuko dituzte

*Berpiztu egitasmoaren hitzarmena sinatu dute asteon*

JULEN IRIONDO / LEIRE KORTABARRIA

**Oñatiko hiru auzoko nekazal eremuak bultzatzeko asmoz, Berpiztu programa jarriko dute indarrean. Horretarako hitzarmena sinatu zuten joan den eguenean Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak, Oñatiko Udalak eta Mendikoik.**

Urrexola, Araotz eta Arantzazu auzoetako nekazal eremuak garatzen laguntzea da Berpiztu egitasmoaren helburua. Orain, lehen fasea indarrean jarriko da. Hain zuzen, hiru auzoetan, Itziar Arkonada arduradunak auzotarrekin berba egingo du eta haien kezkak eta beharrak jaso eta Berpizturi emango dio horren berri. Hasieran, urtebeteko lana izango da.

**TEKNOLOGIA BERRIAK**

Beste bi ekimen egingo dituzte Berpizturen eskutik: Sarekide erakusketa, landa guneetan teknologia berrien eraginaren ingurukoa; eta Mendinet autobusa, Araotzen, auzotarrei teknologia berriak irakasteko. Autobus hori Angiozarren eta Leintz Gatzagan izan da lehenago, eta arrakasta handia izan du.

*Udala, Landa Garapen Elkartea eta Mendikoi erakundea dira arduradunak*



JULEN IRIONDO

Berpiztu programaren arduradunak, hitzarmen sinadura ekitaldian.



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Zubillagako hiltegia zabalik edukitzearen aldeko iritziak bakarrik entzun ziren jardunaldietan; ez zen ixtearen aldekorik agertu.

# Hiltegia zabalik izatearen alde agertu dira Eskoriatzako jardunaldietan

*Hiltegiaren inguruko ikerketaren emaitzak astelehenean jasoko dituzte*

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Ondorio ugari atera dituzte aste honetan Eskoriatzan Zubillagako hiltegiari buruz eginiko jardunaldietan. Itxieraren aldeko iritzirik entzun ez denez, hiltegia ixtea gizarteko hainbat sektorerentzat kaltegarria dela ondorioztatu zuten.**

Aste honetan Eskoriatzako Ibarraundi jauregian *Zubillagako hiltegia eta Debagoieneko harakin eta ganaduzaleen etorkizuna* jardunaldiak egin dituzte. Martitzen eta eguaztenean hitzaldi aretoa lepo bete zen hainbat herritatik joandako ganaduzale, harakin eta, orokorrean, interesa zuen jendearekin.

Hiltegiaren itxieraren kontrako iritziak entzun ziren bi egunean Eskoriatzan. Nahiz eta jardunaldietara itxieraren aldeko jarrera duen jendea gonbidatuta egon, ez zen inor agertu, hainbat arrazoi zirela medio. Besteak beste, hiltegiko gerentea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak zeuden gonbidatuta mahai-inguruan parte hartzera. Erakunde horietako ordezkariak agertu ez izanak haserrea piztu zuen baserritarren artean; hainbat galdera argitzea gura zuten eta.

**ASTELEHENEAN IKERKETA LANA**

Astelehenean, otsailaren 14an, emango du Siadeco enpresak Zubillagako hiltegiari buruz egiten ari den ikerketaren emaitza. Hiltegiaren aldeko plataformako kideek emaitzak jaso, ikertu eta apirilaren 30a arteko epea izango dute ateratako ondorioen berri Mankomunitateari emateko. Zubillagaren itxiera ibar guztiaren kalterako izango litzatekeela ondorioztatu zuten parte-hartzaileek; besteak beste, ganaduzale, harakin eta baita kontsumitzaileentzat ere.

Kezka azaldu dute plataformako kideek. Izan ere, azterketa egiteko denbora laburra izan dutela eman dute aditzera. Hala ere, behin emaitzak jakinda, herriz herri horien berri emateko asmoa dutela azaldu zuten. "Azken batean, guztion intereserako da Oñatiko hiltegia zabalik edukitzea".

Jon Leturia Bergarako harakinak, esaterako, dei egin zien gainerako harakinei itxieraren kontra adierazteko. "Sektorea inplikatzeko ordua da hiltegia itxi ez dezaten. Nola lagun dezakegun? Ez dakit, baina emaitzak ikusi ondoren gauzak argituko direla uste dut".

Bi egunotako hizlariek hiltegia itxiz gero, sektorea harakintza handien esku geratzeko arriskua dagoela azaldu zien bertaratutakoei. Gainera, hiltegi publiko baten aldeko apustua egin behar dela gaineratu zuten. "Hala, gehiago inplikatuko lirateke udaletxe eta politikariak".

AGENDA 21

### Mankomunitatea landa garapena oztopatzen ari dela kritikatu zuten

**Zubillagako hiltegia ixteak ibarreko landa garapenarekin zerikusi zuzena duela eman zuten aditzera Eskoriatzako Ibarraundi jauregian elkartutakoek. Hala, ibarreko landa eremuen garapenari oztopoak jarrita Mankomunitateak iraunkortasuna nola bultzatu gura duen galdetu zioten elkarri. Mari Karmen Iturbe Debagoieneko Landa Garapenerako elkarteko kideak ibarrean –Debagoiena eta Debabarrena– ganadua duten 648 baserri daudela gogorarazi zuen.**

KALTETUAK, KEZKATUTA

### Ganaduzale, harakin, albaitari eta kontsumitzaileak, "galtzaile"

**Kezka nagusi zen jardunaldietako bi egunetan. Esaterako, Oñatiko hiltegia itxiz gero baserritarrek ganadua Bilbora eraman beharko lukete eta garraioaren kostua handitu egingo litzatekeela gaitzetsi zuten. Hiltegia itxita, besteak beste, kalitatean nabarituko litzatekeela gaineratu zuten. Kontsumitzaileak kalitatea baloratzen duela gogorarazi, eta, beraz, "ganaduzale eta harakinak ez lirateke kaltetu bakarrak izango, kontsumitzaileek ere asko galduko dute eta".**

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Ibarreko tranbiaren gaineko erakusketa inauguratuko du Alvaro Amann sailburuak

Alvaro Amann sailburuak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak astelehenean inauguratuko dute Arrasateko udaletxean tranbiaren proiektuaren erakusketa. Proiekturen zehaztasun guztiak izango dira ikusgai. Arrasateko Udaleko ordezkariek ere esku hartuko dute ekitaldian.

### Legebiltzarrak herri txiroen aldeko legea egiteko, 30.000 sinadura batu nahi dituzte

Euskal Herriko hainbat giza mugimendu eta gobernuz kanpoko erakundek batu nahi dituzte 30.000 sinadura, proposatzeko Eusko Legebiltzarrari lege bat egin dezala herrialde txiroei laguntzeko. Lege horrek oinarrizko lau konpromiso jasoko ditu: herri txiroen kanpo zorra kentzeko, Jaurlaritzak atal bat sor dezala 10 urtean zehar biztanle bakoitzak 16 euro ordainduz; bidezko merkataritzako produktuak bermatzea; arma industriarik ez sustatzea; Jaurlaritzak harreman bidezkoago eta orekatuak bultza ditzala. Hiruatx taldeak zapatuan batuko ditu sinadurak; Aretxabaletan, Arlutz tabernaren ondoan eta Eskoriatzan udaletxe aurrean, 19:00etatik 21:00etara.

### Leintz aldean egingo den Kilometroak jaiak ia zehaztuta dauka ibilaldia

Zortzi kilometro izango ditu Kilometroak jaiaren zirkuituak. Batik bat Aretxabaleta inguratuko du, nahiz eta Eskoriatzan barrena ere ibiliko den. Copreciko aparkalekuan hasiko da, bainutxeko bidegorrian gora Urkuluraino joango da eta handik Areatza aldera, Bolina, Arkarazo, Almen eta berriz ere Aretxabaletara egiteko.

BERGARA

## Behin-behineko autobus geltokia bi aste barru zabalduko dute

Torrekuako behin-behineko autobus geltokia zabaltzea uste baino gehiago luzatzen ari da. Hasieran, Udaleko iturriek, abendurako zabalduko zutela adierazi zuten; lanak amaitzear daude orain, eta bi aste barru zabaltzea da Udalaren asmoa.

Markesinak kokatu ondoren, Torrekuako geltokian komunak jartzea falta da. Komunak kokatzeko lanen adjudikazioa oraindik ez du egin Udalak, eta, beraz, hasiera baten, komunik gabe jarriko dute abian behin-behineko autobus geltokia. /E.M.

ARAMAIO

## Ikastaro bat eta ipuin lehiaketa antolatu ditu Txirritola elkarteak

Datorren asterako, gorputza erlaxatzen ikasteko ikastaroa antolatu du Txirritola Euskara Elkarteak. Eguaztenean izango da, hilak 16, kultura etxean, 18:30ean hasita. Marijose Pagaldai eskoriatzarrak emango du. Parte hartzeko interesa duenak astelehenera arteko epea du izena emateko (astelehena barne). Liburutegian egin behar da hori.

Ipuin lehiaketari dagokionez, gazteendako zein nagusiendako da. Parte hartzeko, martxoaren 5a baino lehen eraman behar da ipuina, liburutegira. /U.M.

ELGETA

## Bilera egingo dute astelehenean, Azoka Nagusiko jaiak antolatzen hasteko

Azoka Nagusiko jaiak uztaileko lehen asteburuan ospatuko dituzte. Hala ere, prestaketa lanetan garaiz hasiko dira elgetarrak. Horretarako, Jai batzordeak bilera deia egin du. Batzarra astelehenean, otsailaren 14an, izango da, 21:00etan, udaletxean. Bertan azaldu beharko dira jaiak antolatzen parte hartu nahi duten herritarrak edo jaietarako ideia zehatzen bat dutenak. Iazko jaien gaineko balorazioa aztertzeaz gain, aurtengoetarako gauza berriak pentsatuko dituzte. /I.A.



U.M.

ARRASATE

# Polmetasaren eta Udalaren arteko hitzarmena sinatuta

Sinterstahl Polmetasa lantegiak eta Udalak eguaztenean eman zioten izaera ofiziala bien artean hitzartutakoari: lantegia lekuz aldatuko da, baina Arrasaten bertan; eta, hala, orain lantegia dagoen lekuan etxebizitzak eraikiko dituzte. Hain justu ere, lantegia udalerrian gera dadin bermatzeko, Uribarri auzoan 13.000 $m^2$-ko lantegi berria eraikiko dute, oin bakarrekoa, 250-325 lanposturendako lekuarekin. Era berean, lantegiaren oraingo kokalekuan 220 etxebizitza eraikiko dituzte, 66 babes ofizialekoak. Polmetasako eta Udaleko ordezkarien arteko hitzarmenaren lekuko izan zen Gipuzkoako ahaldun nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri. Hark halako hitzarmenen garrantzia azpimarratu zuen, etxebizitzen beharrari eta industriaren deslokalizazioari aurre egiten dietelako. /U.M.

ANTZUOLA

# Gaur inauguratu dute haurreskola, 0 eta 2 urte arteko umeendako

Hilabete hasiera ezkero zabalik badago ere, gaur, egubakoitza, egin dute 0 eta 2 urte arteko umeendako haurreskolaren inaugurazio ofiziala.

Ekitaldian, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko sailburuorde Abel Ariznabarreta izan da.

Hezkuntzan Antzuolako ikastetxeko hezkuntza metodologia eredu den bezala, haurreskola ere eredu izango da beste haurreskola askorendako. Espazio banaketa, ekipamendua eta baita hezkuntza proiektua ere oso modu berezian zaindu dira, eta aholkularitza profesionala erabili da horretarako.

Haurreskola herriko ikastetxean dago eta ikastetxearekin harreman zuzena du: irakasleekin, hezkuntza proiektuarekin eta instalazioekin (psikomotrizitate gela erabiltzen dute, adibidez).

Urte osoan egongo da zabalik, jaiegun ofizialetan eta abuztuan izan ezik. Ordutegia, berriz, 07:30etik 18:30era arte izango da.

Hileko kuota 135 euro da haurreskolan bost ordu edo gutxiago ematen dituzten umeendako eta 180 euro, bost ordu baino gehiago eginez gero.

Oraingoz bost umek eman dute izena, eta bi irakaslerekin jarduten dute.

**ATE IREKIAK**

Bestalde, arduradunek jakinarazi nahi dute domekan, otsailaren 13an, haurreskola zabalik egongo dela. Ikusi egin nahi dutenek 12:00ak 14:00ak artean joan beharko dute. /I.A.

**Zertzelada**

**Antzuolako haurreskola eredu izango da beste haurreskolendako; espazio banaketa, ekipamendua eta hezkuntza proiektua asko zaindu dituzte.**

OÑATI

# Ibilgailuendako noranzkoa aldatu eta aparkaleku gehiago Olaa auzoan

Ibilgailuendako aparkaleku gehiago eta zirkulazioaren noranzkok aldatu gingo dituzte Olaan. Etxe gehienetan igogailuak jarri dituzte, eta, batzuetan, igogailutik ateratzean ezin da ikusi autoa datorren edo ez. Hala, arriskurik ez sortzeko, zirkulazioaren orain arteko noranzkoa aldatu egingo dute. Bestalde, 40 aparkaleku baino gehiago egingo dituzte; haur eskolaren aurrean dauden zabuak kendu egingo dituzte eta bertan, aparkatzeko tokia egingo dute. Berdegunearen zati bat utziko dute, hala ere. Erreka ertzean eta etxe blokeen artean ere egingo dituzte. Zehazteke duten arren, lanak laster hasiko dituztela uste dute. /O.E.



OIHANA ELORTZA

**40 aparkaleku baino gehiago egin nahi dituzte Olaan.**

ARETXABALETA

## Etxafuegoekin apurketa asko egin dituzte Santa Ageda eta Aratuste jaietan

Santa Ageda eta Aratuste jaietako giro bikaina gauean egindako apurketek ilundu zuten; gehienak, gainera, etxafuegoekin egindakoak. Udalak apurtutakoaren berri jaso du, eta guztia konpontzeko 1.404 euro beharko ditu. Bost zakarrontzi, Durana kaleko eserlekuen egurrak, edukiontzietako zutoinak eta zuhaitz asko apurtu zituzten: zazpi ligustrum eta bi ezki, hain zuzen. Zuhaitz horiek, gainera, aurreko astean landatuta zeuden. Horiez gain, igogailu baten eta ur hodietan ere sartu zituzten etxafuegoak. /M.A.

ESKORIATZA

## Kontzejupek bat egin du presoek estatus politikoa lortzearekin

Aurreko astean Eskoriatzako Kontzejupe herri plataformak EA-EAJ koalizioak aurkeztutako testu batekin bat egiten zuela azaldu zen atal honetan. Aditzera eman dutenez, "ez dugu testu horrekin bat egin eta ez dugu egingo. Euskal preso politikoen estatus politikoa onartzeko presoak egiten ari diren protestaldiekin egiten dugu bat. Gainera, hamabostaldi honetan Marixol Iparragirre eta Mikel Illarramendi herriko presoak dabiltza protesta ekimenak egiten", eman du aditzera herri plataformak. /Z.V.M.

GATZAGA

## Eskoriatza aldera joango dira eskalatzera GURELek antolatuta

Inauteriak primeran igaro ondoren, sasoian jartzeko txanda dute oraingo astean Leintz Gatzagako lagunek. Hala, Eskoriatza aldera joango dira herriko zenbait gazte, eta eskalatzen duten abilezia erakutsiko dute, rokodromoan.

Izan ere, GUREL guraso elkarteak antolatuta jaitsiko dira bihar Eskoriatza aldera. Negurako hainbat ekintza antolatu ditu elkarteak, eskalatzeaz gain. Esaterako, martxoan eskiatzera joango direla eman dute aditzera Leintz Gatzagako lagunek. /Z.V.M.

# Gutunak

## Kultur programazioaren hutsunea

Hauxe da Arrasateko Udalaren urtarrileko kultur programazioa: 11 film (23 emanaldi), antzerki bat, kontzertu bat eta erakusketa bi.

Entzuna diogu herriko alkateari, egindako hainbat adierazpenetan, mimo berezi batekin zaindu eta indartu nahi dutela kultur eta aisialdiko programazioa, jendeak herrian bertan disfruta eta goza dezan, kanpora joan beharrik gabe.

Bat gatoz asmoarekin, eta hori betetzen saia daitezen anima nahi dugu. Baina, oraingoz, urtarrilekoa, edo abendukoa, edo azarokoa begiratzea besterik ez dago, bada hutsune arduragarri bat egindako ahaleginean: zer dela-eta euskarazko ekitaldi hain gutxi?

Ikus dezagun zehatzago urtarrileko Amaiako programazioa: nagusiendako filmak, 17 (0, euskaraz; 17, gazteleraz); umeendako filmak, 6 (0, euskaraz; 17 gazteleraz); antzerkia, 1 (gazteleraz); guztira, 24 emanaldi (0, euskaraz; 24 gazteleraz).

Ulertezina da. Batetik, Udalak legea bera hausten duelako jokabide horrekin ("Euskal Herriko agintariek euskara gizarte-bizitzaren alor guztietan erabil dadila sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharreko baliabideak jarriko dituzte, herritarrei bere merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste nolanahiko ekintzabidetan euskaraz ari daitezeneko bideak eskaintzeko". (Euskararen erabilpena arautzeko 10/1982 legea).

Bestetik, egundoko kontraesana delako Euskara eta Kultura sustatzeko batzorde baten eskutik etortzea, non eta Arrasaten, euskara sustatu beharrean gaztelera indartzen duen programazioa. Euskararen alde egiteko modu bitxia!

Euskal kultur munduan zer eskaini ez balego, edo euskarazko ekitaldiek interesik sortuko ez balute, ulergarri egingo litzaiguke agian Udalaren jokabidea; baina, jakin badakigu ez dela hori kontua: beste herrietako karteldegiak ikusi besterik ez dago Arrasatera iristen ez diren ikuskizunak, eder askoak, ugari direla frogatzeko; euskarazko filmak badiren bezalaxe; bestalde, ikuskizunok merezi dutenean, herritarren erantzun ona jasotzen dutela ere gauza jakina da. Zein da orduan arazoa?

Zuzenketa bat beharrezkoa da, zehatza eta garbia, gai honetan, aurrerantzean euskaldunok aintzat har gaitzan Udalaren kultur programazioak. Udalak berebiziko eginbeharra dauka udalerrian euskara zabaldu eta indartzerakoan. Beraz, ez diezagula hutsegin.

ALEJANDRO ALTUNA
Arrasate

## Konstituzio honi ez

Aralar izan zen Europako Konstituzioari EZ esateko erabakia hartu eta publiko egin zuen lehen euskal alderdia, 2004ko udan. Ez zegoen zalantzarako aukerarik ere.

Erabakiarekin batera, ezezkoaren alde ahalik eta herritar gehien biltzeko elkarlanerako deia egin zuen eta eskua luzatu. Batzuek argi eta garbi adierazi diote Aralarri ez zaiela horrelako elkarlanik interesatzen. Beste zenbait eragilerekin, aldiz, indarrak biltzen ari gara eta lekuan-lekuan plataforma anitzak ere sortu dira: gazte taldeen plataforma, gerraren aurkako plataformaren bidetik Donostian edota Nafarroan sortu den plataforma zabala, adibiderako. Debagoienean ere horretan ari gara saiatzen, elkarlanerako prest daudenekin.

Hala ere, jenderik gehienak ezer gutxi daki otsailaren 20an bozkatu beharreko Konstituzioaz, ez da eta behar adinako informaziorik ez eztabaidarik egon. Baina kontuz, gure eta ondorengoen bizitzei eragingo dien oinarrizko legea baita, gugan eragina duten lege guztiak baino goragoko maila duena. Gainera, aldatu ahal izateko 25 estaturen arteko akordioa beharko duena, behin onartuz gero. Horregatik, Aralarren izenean, 10 arrazoi eman gura ditugu, modu ulerterrazean, egun horretan EZ esatera joateko:

1. Ez da konstituzio bat, zenbait estaturen gobernuek sinatutako Itun bat baizik. Bertan ez dago *Europako herriaren* aipamenik, ezta herriaren subiranoari buruzkorik ere, herri batek gizarte gisara eratzeko bere buruari ezartzen dion *carta magna* dela pentsarazteko modukorik. Delako konstituzioa elaboratzeko moduan beraz, gabezia demokratiko nabaria dago.

2. Europako estatuez kanpoko etorkinak ez ditu Europako hiritartzat hartzen eta inmigrazioaren *arazoa* konpontzeko bidetzat polizia-kontrola ezartzen du.

3. Herriei euren eskubideak ukatu egiten zaizkie: autodeterminazio-eskubideari ez, estatuen mugak gaur egungoetan mantentzeari bai. Estatu bako herrien hizkuntzak, bigarren mailakoak.

4. Ez da soilik Europa militarizatuta geratuko, baizik eta Europako Batasuna bera NATOren agindu eta konpromisoen menpe uzten du. Hori gutxi balitz, estatuak Gastu Publiko Militarra areagotzera behartzen ditu, Europa potentzia militar bilakatu nahian, armamentu-norgehiagokan murgilduz.

5. Barneko merkatua gotortzeak du benetako garrantzia: merkatuko ekonomia erabat lehiakorra sustatuko da, gizarte eskubideak murriztuz egin behar bada ere. Zerbitzu publikoak, aurrerantzean, interes ekonomiko orokorreko zerbitzu izango dira.

- Lana izateko eskubiderik ez; lan egiteko eskubidea baino ez.

- Etxebizitza duina izateko eskubiderik ez; etxebizitzarako laguntza jasotzeko eskubidea baino ez.

- Oinarrizko errentarako eskubiderik ez; laguntza soziala izateko eskubidea baino ez.

6. Emakumeek: langabezia gehiago eta lan kolokakotasun handiagoa.

- Ezkontzeko eskubidea eta familiaeredu tradizionalaren babesa: non daude gainerako familia-ereduak?

- Eta emakumeak bere gorputzaren gainean erabakitzeko duen eskubidea?

7. Deslokalizazioen Europari baietz esaten dio: Ekialdera hedatuz, liberalizaturiko merkatua handitzea bilatzen da. Europa solidarioari ez.

8. Europako erakundeek demokraziagabezia dute: gehiengo kualifikatuak eskatzen dira, eta estatuetako gobernuek lehentasuna dute.

9. Nork kontrolatzen ditu hiritarrok aukeratzen ez ditugun erakundeak, hau da, Europako Batzordea, Banku Zentrala?

10. Herri-ekimenerako eskubidea? Milioi bat herritarrek Batzordeari *gonbita* egin ahal izango dio, proposamen bat egin dezan, baina ez da horretara beharturik izango.

Arrazoi gehiago behar al da? Neoliberalismoaren Europarantz garamatzan atzera pausuari ezezko borobila eman behar diogu. Esan Ez konstituzio honi!

DEBAGOIENEKO ARALAR
Debagoiena

## Ertzaintza, polizia politikoa bihurtzen denean

Bergarako LABekook joan zen otsailaren 3an Ertzaintzak gurekiko izandako jarrera salatu nahi dugu. Izan ere, Euskal Preso Politikoen izaera politikoa aldarrikatzeko Bergarako udaletxean itxialdia egitea erabaki genuen. Horretarako, Udaleko agintarien baimena eskatu genuen udaletxeko pleno aretoan itxialdia egiteko. Bergarako Udaleko agintarien baimena jaso ondoren, otsailaren 3an, osteguna, Bergarako LABeko delegatuak udaletxeko pleno aretora joan ginen gaua pasatzeko asmoz. Horrekin batera, udaletxe aurrean auto bat megafoniarekin jarri genuen musikarekin eta euskal presoen eskubideak aldarrikatzen zituzten leloekin eta pankarta baten atzean udaletxe aurrean jarri ginen.

Berehala kalekoz jantzitako bi ertzain enkarteladan zegoen kide bati identifikazioa eskatu zioten eta megafoniarekin zegoen autoa "norena zen galdetu zuten". Horren aurrean, gure harridura azaldu genien bi ertzainei eta bitartean plazara ertzainen beste bi auto etorri ziren. Ez zen inongo istilurik ez inongo irainik izan gure partetik, megafonia eta udaletxe aurrean pankarta baten atzean jartzea izan zen gure *delitu* bakarra.

Kalekoz jantzitako ertzainak bere jazarpen politikoarekin jarraituz gure delegatu baten datuak eskatu zituen Jabi Lazkano preso bergarararraren kartel bat soinean eramategatik. Ez dakigu zertarako beharko dituen datu horiek, baina agian Espainiako Audientzia Nazionalera bidaltzeko arriskuan dago gure sindikatuko kidea, beste gazte bergarar batzuei gertatu zaien moduan. Honekin *komisario politikoa* ez zegoen pozik eta megafonia zeraman autoko arduradunari multa bat jarri zion *paso de zebra* baten gainean gaizki aparkatzeagatik…

Ertzain *komisario politikoa* ez zegoen pozik eta alkatearen baimena idatziz erakutsi genion arren, Udal pleno aretora sartu zen han genituen gauzak, sakoak, mantak eta abarrak erregistratzera.

Egoera honen aurrean, LABeko kideok garbi adierazi nahi dugu Ertzaintzaren jarrera hauek jazarpen politiko hutsa direla eta inongo arriskurik ez dagoen ekintza baketsu bat zapuztera eta kontrolatzera etortzeak ez duela inongo onurarik ekartzen gaur bizi dugun egoerari. Alderantziz, horrelako jarrera errepresibo zentzugabeek ez dute ekarriko soluziobiderik eta horregatik eskatzen diogu Bergarako ertzain buruari eta honen arduradun politikoei horrelako jarrerak ekiditea eta gure delegatuaren aurkako neurririk har ez ditzala. Era berean argi laga nahi dugu Bergarako LABeko kideok nahiz eta jazarpen horiek jasan preso politikoen eskubideen alde lanean jarraituko dugula.

BERGARAKO LAB-EKO HERRI BILTZARRA
Bergara

## 654

Hertzainak-ek atera zuen *564* abestiaren bertsio berria da 654. Ez da loteriako zenbakia, ez horixe! Euskal gazteriak astelehenetik aurrera esku artean daukan boletoaren zenbakia da. Jarrai-Haika-Segiko gazteei egotzi nahi dieten urte kopurua da 654. Batzuen ustez dagokien zigorra ordainduko dute 654 urte espetxean igaro ondoren. Maite zaituztegunontzat, berriz, injustizia galanta. Euskal Herriaren aurkako erasoa baino ez! Baina hau guztia nork ulertarazi?

Ta ezer ez da berdin izango gazte mugimendurik gabe, HAIKA neska eta mutil, JARRAI aurrera eta SEGI!

IRATI PAGOAGA
Aretxabaleta

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lagun Aroren laguntza prestazioa Osakidetzara pasatzeko prozesuren barruan, Arrasateko igualatorioko zortzi langileek salatu dute enplegu erregulazio espedientea aurkeztu dietela. Baldintza eta tratu hobeak eskatzen dituzte.

OIHANA ELORTZA



OIHANA ELORTZA

# Eugenio Iturriotz

IGUALATORIOKO MEDIKUA

## "Antzinatasunik gabe eta negoziatu gabeko baldintzetan bidaltzen gaituzte Osakidetzara"

NEGOZIAKETAK

**"Guk ez dugu aukerarik izan negoziaketan parte hartzeko, eta, lasai egoteko esan diguten arren, enplegu erregulazio espedientea da idatziz ekarri diguten agiri bakarra"**

MUTUALISTENGAN IZANGO DUEN ERAGINA

**"Mutualistei esan diete ez dela ezer aldatuko, baina aurrerantzean Osakidetzako sistemara moldatu beharko dute, eta ez dute medikua eta ordua aukeratzeko aukerarik izango"**

**Zein da zuen egoera?**

Hiru medikuk Osakidetzara joan behar dugu bitarteko kontratu batekin, eta orain, ordenagailuko ikastaro bat egiten gabiltza. Erretiroa hartu arte langabeziara doan medikuak eta administrazio laguntzaileak kontsultategian jarraitzen dute, itxi arte. Enplegu erregulazio espedientea aplikatu digute. Lagun Arok Bilboko abokatu batzuk ekarri ditu gai horretaz arduratzeko, eta abokatu horiek eta gureak, sindikatuekin batera, negoziaketak egiten dihardute orain.

**Noiz itxiko dute Arrasateko Erdiko kaleko igualatorioa, zehazki?**

Oraindik ez dute zehaztu, baina argi dute lehenbailehen itxiko dutela.

**Bitartean lanean jarraitzen duzue?**

Bai, baina egiten ari garen formazio ikastaroa amaitzen dugunean anbulatoriora joateko esan digute, han lanean hasteko. Hala ere, kooperatibistei ez diete eman oraindik kartila, Lagun Aroren txartelarekin joango dira eta gero ez dakit nola konponduko diren. Gauzak azkar egin dituzte eta asko dago oraindik zehazteke.

Gainera, gure kontsultara etorri diren mutualisten mediku-historialak Erdiko kalean daude eta oraindik ez dakigu zer egin behar den material horrekin.

**Zer salatu nahi duzue?**

Idatziz ez zaigu ezer aurkeztu; bakarrik otsailaren 2an eman ziguten enplegua erregulatzeko espedientea, beste ezer ez. Osakidetzarekin Lagun Arok izan dituen negoziaketetan parte hartu nahi genuela esan genuen behin eta berriz, baina ez digute kasurik egin eta Hezkuntza eta Asistentzia Ligak ezetz erantzun zigun. Jose Antonio Ajuriarekin, Lagun Aroko presidentearekin, bi bilera egin ditugu eta bietan, kontsultategia ixtea azken aukera izango zela esan digu, beste bide asko zeudela gure arazoa konpontzeko. Lasai egoteko esan digu beti Lagun Arok, baina, azkenean, kontsultategia ixteko aukera planteatu digute, eta korrika eta presaka, gainera. Harritu gaitu, era berean, enplegua erregulatzeko espedientea egitera Bilboko abokatu batzuk etortzea.

**Ez duzue negoziaketan parte hartu?**

Ez. Ajuriarekin egin ditugun bi bileretan eskatu diogu mesedez idatziz ekartzeko gaiaren nondik norakoak. Idatzita ekarri digun bakarra, ordea, enplegu erregulazio espedientea da. Negoziaketak itxita daudela esan digute, gainera, eta orain sindikatuekin batera saiatzen ari gara gure eskaerak kontuan har ditzaten. Normalena negoziaketa hasi aurretik Lagun Arok egin behar zuena da hau, baina ez dugu etsiko.

**Zer negoziatu nahi zenuten zuek?**

Gure etorkizuna zehazteko baldintza onak. Bi aldeek adostu duten akordioari esker, aurrerantzean ez digute gure antzinatasuna kontuan hartuko, ezta gure maila eta errekonozimendu profesionala ere. Guk badakigu Osakidetzak behar batzuk dituela; badakigu, adibidez, hiru mediku, bi erizain eta bi administrazio laguntzaile behar dituela Arrasaterako, mediku bat eta erizain bat Leintz Gatzagarako, laguntzaile bat Oñatirako, beste mediku bat Bergararako eta Azpeitia, Beasain eta Ordizian ere behar dituztela mediku zein erizainak. Guk bete ditzakegu lan horiek. Baina bi administrazio laguntzaileak, adibidez, lanera katera joango direla erabaki dute alde biek, nahiz eta oraindik ez dieten esan noiz, nora eta zein baldintzatan joango diren. Medikuok eta erizainok Osakidetzako postu horiek lortzeko aurkez gaitezke, baina jakinekoa da ez ditugula lortuko, ez zaigu antzinatasunik errespetatzen eta. Bi urte barru izango dira deialdi publikoko eskaintzak

**Desabantaila duzue?**

Bai. Nik ulertzen dut Osakidetzan lanean dabilenak pentsa dezakeela gu zergatik sartzen garen Osakidetzan euretako asko baino errazago, baina guk gure antzinatasuna errespetatzea eskatzen dugu, justua delako. Gainera, igualatorioa Osakidetzaren entitate laguntzailea izan da.

Horretaz guztiaz hitz egiteko eta ditugun aukerak eta baldintzak ondo adosteko nahi genuen negoziaketetan parte hartu, baina Lagun Arok behin eta berriz esan zigun lasai egoteko. Orain, ordea, esaten du Osakidetzak desegitera behartzen duela, ez duelako entitate laguntzaile kontsideratzen gure igualatorioa. Guk beti tratatu ditugu gure bezeroak, mutualistak, pertsonak bezala, baina ikusten dugu gu ez gaituztela horrela tratatu, eta minduta gaude.

**Zer eskatzen duzue?**

Guk, berez, ez dugu arazorik Osakidetzara pasatzeko, baina sartzeko baldintzak hobetzea eskatzen dugu, hau da, gaur egungo egoera laboralean pasatzea, talde osoa eta baldintza beretan. Enpresa ixten bada, berriz, kalte-ordaina zein izango den jakin gura dugu, kontuan harturik antzinatasuna galdu egingo dugula eta erretiroan horrek izango duen ondorioa. Antzinatasuna, gutxienez, puntuazio gisa onartzea eskatzen dugu, eta, langabezian gelditzuz gero, kooperatibetan birkolokatzea. Dugun esperientzia onartzea ere bai. Gainera, gu Osakidetzan ez gaude Lagun Arogatik, hark gure beharra eskatu zuelako.

**Nola izan zen hori?**

1978an, Lagun Arok iragarki bat jarri zuen, medikuak eskatuz jardunean zegoen sendagile ekipoan parte hartzeko. Famili medikuntzan sartu gintuzten, eta Asistentzia Zentroan —egun, Eskualdeko Ospitalea— hasi ginen lanean. Gero Arrasateko Erdiko kalera pasatu ginen igualatorio gisa. 1988an, Asistentzia Zentroa Osakidetzara transferitu zuten, baita langileak ere, orduan zituzten lan baldintza berekin. Guri ere eskaini ziguten Osakidetzara pasatzea, baina Lagun Arok esan zigun bere interesekoa zela gure kontsultategia eta eurekin lanean jarraitzea eskatu zigun. Beste 28 urte egin ditugu.

**Ez duzue aukerarik kooperatiban bertan birkolokatzeko, enpresako mediku bezala, adibidez?**

Kontseilu sozialarekin hitz egin genuen eta harrituta gelditu ziren, uste baitzuten orain arteko baldintza berekin gindoazela Osakidetzara. Orain, kontseilu sozialak eskatu du langabeziara joaten bagara kooperatiba barruan birkolokatzeko aukera izatea. Gertatzen dena da kontseilu sozialak ez duela botere exekutiborik, kontsulta organoa baino ez da.

**Igualatorioa itxita, zer gertatuko da bezeroekin, mutualistekin?**

Mutualistei esan diete lasai egoteko, bakarrik lekua aldatzen dela, aurrerantzean anbulatoriora joan beharko dutela baina mediku bera izango dutela. Eta hori ez da egia. Hemendik bi urtera ateratzen dituzten postuak lortzen ez baditugu, kalera goaz, langabeziara.

Gainera, kooperatibistek anbulatoriora joan beharko dute aurrerantzean eta Osakidetzak duen sistemara moldatu beharko dute, ezin izango dute konfiantzazko medikurik aukeratu, egokitzen zaien medikua izango dute eta eurek nahi dutenean ere ezingo dira medikuarengana joan, Osakidetzako ordenagailuek esandako egun eta orduan baizik.

**Jasotako tratuak mindu egin zaituztela esan duzu lehen.**

Enplegu erregulazioaren espedientea ikusita, enpresaren itxiera eta kaleratzearekin, zenbaki ekonomiko batzuk bezala tratatu gaituzte eta enpresa kapitalistetan gertatzen ez den prepotentzia eta inpunitateaz esaten digute ez dutela beste aukerarik. Beste enpresa batzuk itxi dituztenean, erretiro planak eta bestelako aukerak ere eskaini dizkiete langileei, baina guri ezta horixe ere. Orain arte izan ditugun harremanak onak izan dira eta harritu egin gaitu jarrera horrek, konfiantza osoa izan dugu-eta.

# Mendiko eskiko Kopan, hasiera ona

## Ibarreko lau lasterkari lehenengo postuetan; oraingo domekan Formigalera

XABIER URTZELAI

**Joan den domekan jokatu zuten Mendiko Eskiko Euskadiko Kopako lehen lasterketa, eta ibarreko lagunek bete zituzten podiumeko postu ia guztiak. Hainbat izen daude azpimarratzeko, baina Leire Ezpeletak egindako lasterketak aipamen berezia merezi du. Euskadiko Kopa barruan, bedoñarra izan zen lehen emakumea.**

Gizonezkoetan Joseba Ormazabal izan zen lehena. Eta ibarreko bi ordezkari sailkatu ziren bigarren eta hirugarren lekuetan: Aitor Otxoa eta Arkaitz Letamendi oñatiarrak. Euskaldunen artean azkarrena izan zen Ormazabal, eta gutxigatik ez zuen Luz Ardidengo lasterketa irabazi. Helmuga zeharkatzeko metro gutxi falta zitzaizkionean aurreratu zuen Roland Lebeau frantziarrak, ezustean. Esandako moduan, Euskadiko Kopan hurrengoak izan ziren Otxoa eta Letamendi— lasterketan seigarren eta zazpigarren postuetan—. Hala, bi oñatiarrek ondo baino hobeto hasi dute txapelketa. Domekan ikusitakoarekin, baina, aitortu behar da kontrario izango duten Joseba Ormazabal sasoi onean dagoela.



JUAN PRECIADO
**Emakumeen sari banaketan, Leire Ezpeleta, Isa Casado eta Izaskun Zubizarreta.**

**PIERRA MENTAKO LASTERKETA HELBURU**

Emakumeetan ere ibarreko bi lasterkari izan genituen euskaldunen artean lehenengo postuetan, Arrasatekoak biak. Leire Ezpeleta izan zen lehena (2:03:55) eta Isa Casado hirugarrena (2:16:32). Tartean sailkatu zen beste euskaldun bat, Izaskun Zubizarreta. Isa Casado min hartuta egon da orain arte, eta hala ere lasterketa txukuna egiteko gauza izan zen. Leire Ezpeletak, berriz, gorputzaldi ederrean dagoela erakutsi zuen. Bedoñakoak aurtengo helburuen berri eman digu: "Egia da aurten gehiago entrenatu naizela. Joan den urtean egindako lanari esker esan ziguten Isari eta bioi martxoaren 9tik 12ra arte Alpeetan egingo duten Pierra Mentako lasterketan esku hartuko genuela, eta horretarako nabil ondo prestatzen".

Domekako lasterketaren gainean ere egin digu berba: "Ez nuen uste Euskadiko Kopan lehena sailkatuko nintzenik. Aurrean neukan Estatu mailan punta-puntan ibiltzen den Luisa Romerales, eta hari jarraitzen ahalegindu nintzen. Aldapa goran bion arteko aldea txikitu egiten nuen, baina jaisterakoan aurrera egiten zuen. Hura izan zen lasterketako lehena, eta bigarrena nintzela uste nuenean Claire Nobilean frantziarra aurreratu zitzaidan. Nondik azaldu zen ere ez dakit".

Oraingo asteburuan Formigalen izango dira guztiak: "Aurrealdean egoten saiatuko naiz, baina horrelako lasterketetan edozer gauza gerta daiteke. Domekan, adibidez, *camelback*-ean (ura eramateko motxila) neraman ura izoztu eta ur barik egin behar izan nuen lasterketa".

## Kirolabur

**MENDIA/**BATZARRA

Euskal Mendizale Federazioak bilera egingo du bihar zuzendaritza batzorde berria aukeratzeko. Bi hautagai daude presidente posturako: Alvaro Arregi arrasatearra eta Arantza Jausoro gasteiztarra. Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egingo dute batzarra, 16:30ean.

**ERRUGBIA/**ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeak denboraldiko norgehiagoka garrantzitsuena jokatuko du Zarautzen kontra, bihar (16:00etan, Garagartzan). Hil edo biziko partidua jokatuko dute; izan ere, norgehiagoka galtzen duenak maila galduko du.

**ARKU TIROKETA/**OÑATI

Txantxiku Arkulariak taldeak ligako bosgarren jardunaldia antolatu du domekarako. Hamar taldetako 35 arkulari inguru elkartuko dira. 12:00etan hasiko dute txapelketa, Zubikoa kiroldegian.

**FUTBOLA/**PREFERENTEA

Aretxabaletak eta Mondrak jokatuko dute asteburuan etxean. UDAk Tolosaren kontra (domeka, 16:30ean). Mondrak, berriz, Real Unionen bisita izango du (zapatuan, 16:30ean).

gasteizon
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU
www.gasteizon.com 2005EKO OTSAILAREN 11tik 17 arte

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES GURIDI ZINEMAK
"LOS PADRES DE EL"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
"EL VUELO DEL FENIX"(ESTREINALDIA)
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
"ELEKTRA"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30
"MIERCOLES DE CENIZA"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 8-10:30
"RAY"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-9
"CLOSER"
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30
"EL AVIADOR"
OSTIRALETIK IGANDERA: 7,15
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 8,30
"WHITE NOISE"(ESTREINALDIA)
HORARIO DE VIERNES a DOMINGO: 5-7,45-10,30
HORARIO DE LUNES a JUEVES: 5,30-8-10,30
"MILLION DOLLAR BABY"
OSTIRALEAN eta ASTELHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30
LARUNBATEAN eta IGANDEAN: 5-7,45-10,30

zinea

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES FLORIDA-GURIDI ZINEMAK
"DESCUBRIENDO NUNCA JAMAS" (ESTREINALDIA)
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
"LOS CHICOS DEL CORO"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10:30
"SOLO UN BESO"
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-10,30
"LA VIDA ES UN MILAGRO"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 7,30
"LARGO DOMINGO DE NOVIAZGO"
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30
"LEON Y OLVIDO"(ESTREINALDIA)
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30
"AMOR IDIOTA" (ESTREINALDIA)
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30

zinea

Kultur Agenda

OTSAILA
OTSAILAK 11 Ostirala
DANTZA: Rocío Molina
20:30. Printzipal Antzokia
Otsailak 12 Larunbata
TXOTXONGILOAK: Birlibirloque
18:30. Falerina lorategia. Montehermoso Kultur gunearen ondoan.
FLAMENKOA: Jerónimo
20:30. Jesus Ibañez de Matauco antzokia (Hegoalde Gizarte Etxea)
MUSIKA: Angra
Gauean. Azkena Gasteiz Aretoa (Andra Maria Zuriaren Koroatzearen kalea)
Otsailak 13 Igandea
FAMILIA GIROKO ANTZERKIA: "Alai"
Panta Rhei konpainia. 12:00 eta 18:00. Printzipal Antzokia
Otsailak 15 asteartea
ANTZERKIA: "Sobre Horacios y Curiacios".
La Abadía taldeak. 20:30. Printzipal Antzokia

kultura



euskaraz ere,
NATURALTASUNEZ

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.
Gure lan egiteko modua da.

Zurekin elkarlanean

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Aulia

Aulia Enea baserria / LEGORRETA
943 80 60 66

- Abendutik maiatz bukaerara arte zabalik.
- Bertako janaria.
- 110 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- **“Tolare” sagardotegia**



## Gurutzeta

Oialume bidea 63 / ASTIGARRAGA
943 55 22 42

- Urtarriletik apirilaren 16ra arte zabalik
- Urte osoan sagardoa botilan salgai
- Janaria eraman daiteke
- Zutik jateko sagardotegia
- Eguenetan 18 eurotako menua
- Eguaztenetan “Asteazkena kantuz” otxote taldea



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gauez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- “Zabadiz” banatzaile ofiziala
- **“Tolare” sagardotegia**



## Iturrieta

Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaian, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa Debagoieneko sagarrekin egina
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- Martitzen eta eguaztenetan itxita
- 55 lagunendako lekua




## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Apiril bukaerara arte zabalik.
- Aste barruan egun osoan txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- **“Tolare” sagardotegia**



## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Urte osoan egunero zabalik igande gauetan izan ezik
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- Berritua eta handiagoa
- Zabalik: Aste barruan iluntzean, zapatuetan egun osoa eta igandetan eguerdian.
- **“Tolare” sagardotegia**




## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailao kazuelak, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
  Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
  Domeketan, eguerdira arte zabalik
  Astelehenetan, itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz bakarrik.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako III. Sagardo lehiaketako irabazlea
- **“Tolare” sagardotegia**

# Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko otsailaren 11

Kultura eta aisialdia

Otsailaren 11tik 18ra





## IBARREKO HIZKEREN LEHENENGO HIZTEGIA

'Bergara aldeko hiztegia' aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Bergarako udaletxean

Deba ibarreko euskal hiztunek oso antzeko berbak erabiltzen ditugu. Leku bakoitzeko hizkerak kolorea eta bizitasuna ematen dioten berezitasunak ere baditu. Hala, horiek ikertu, batu eta 768 orrialdeko hiztegi txukuna egin du Juan Martin Elexpuruk: *Bergara aldeko hiztegia, Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta*. Lekuko hizkerari zukua atera nahi dion edozein debagoiendarrendako, aukerako irakurketa. /15

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO MAPA: LUIS LONBIDE

**GRAND VITARA 3 / 5 ate**
*Leku guztietara eramango zaituzten 3 edo 5 ate!*




SUZUKI

KANPAZAR

TAILERRA: Bizkaia etorbidea z/g
Tel.: 943 79 41 98
ERAKUSKETA: Araba etorbidea 32
Tel.: 943 79 77 66
ARRASATE
**kanpazar@euskalnet.net**

OMU
KERAMIKAK
DEBAGOIENA

**Bainu altzari eta osagaiak**
•
**Hidromasaje kabinak**
•
**Manparak**

**BILTEGIA/BULEGOAK:**
Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

**ERAKUSKETA:**
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



**EUSKARA/ DEBA ARROKO HIZKEREN LEHENENGO HIZTEGIA**

# Ibarreko hiztunok batzen gaituena

HAINBAT HERRITAKO HIZKERAREN GAINEKO IKERKETA LAN SAKONAREN EMAITZA KALERATU DUTE: IA 800 ORRIKO HIZTEGI MARDULA

LEIRE KORTABARRIA

**Debagoien eta Debabarreneko berben lehenengo hiztegia aurkeztuko dute gaur, egubakoitza. *Bergara aldeko hiztegia Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin* izenburupean, 12.000 sarrera jasotzen dituen hiztegi txukuna egin du Juan Martin Elexpuru bergararrak.**

Hiztegi mardul horrendako ikerketa sakonena Bergaran egin zuen Juan Martin Elexpuruk, baina, inguruko herrion berbak ere jasotzen dituenez, praktikan, Debagoien eta Debabarreneko hizkeraren hiztegia da. Elexpuruk berak esaten duenez, ibarreko herrietako hizkeraren "%90 berdina da. Berba bera, nahiz eta akabera diferentea izan askotan, esango da han edo hemen", dio. Desberdin esaten diren berbak ere jasotzen ditu, bakoitza non esaten den ere zehaztuta. Horrelako adibide batzuk dira *itxungi, atzeiñ, atxingi, emendau, amatau* multzoa; edo *takarraran, añiketan, postaka, aintxintxika*…

Ez da bakarrik hiztegia: gramatikaren inguruko sail batzuk ere badauzka. Hainbat herritako hizketa, eta hain modu sakonean, ilustrazioekin… jasotzen duen lehen lana da. Bestetik, hiztegiak Debarroko hizkeraren gaineko ikerkuntza tradizioarekin bat egiten du; izan ere, Elexpuruk liburuan dioen moduan, "gure eskualdea da, zalantzarik gabe, Euskal Herrian herri-hiztegi gehien eta onenak egin dituena".




Liburuaren itxura asko zaindu dute egileek, azalean bertan ikusten den moduan.

**ZALETASUNA, LAN BIHURTU**

Liburua bera urte luzeetako lanaren emaitza da. Lan hori zaletasun bezala hasi zuen Juan Martin Elexpuruk, 20 urte zituenean ingurukoei entzuten zizkien berbak apuntatzen hasi zenean. 4.000 berba batu zituen horrela. Gerora, aurreko ikerketa-lanak erabiltzen hasi zen, eta berak ere parte hartu zuen Euskaltzaindiarendako datu bilketan. Azkenik, Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean, tesi bezala aurkeztu zuen ordura arteko emaitza. Datuak jasotzeko modu nagusia herritarrekin elkarrizketak izan dira. Baina berba gehienak ama Klementa Arregiri entzun dizkio egileak, eta hari eskaini dio liburua. Horrenbestez, liburua ez da hiztegi soila; izan ere, "aspaldiko ohiturak, landareen eta eguraldiaren gaineko gauzak, ipuin laburrak" eta beste jakinduria eredu batzuk ere batzen ditu.

**EUSKALKIEN LEKUAZ**

Horrenbestez, Debagoieneko eta Debabarreneko zati bateko euskalkiari dagokion tokia emateko beste pauso bat da hiztegia. Liburuaren hitzaurrean, Ibon Sarasola euskaltzainak dio lagunarteko euskara jatorrean egiteko abiatu behar dugula "egungo hiztun onak eta seguruak erabiltzen duen hizkera bizia ezagutzetik eta aztertzetik. Ahalegin horretan tresna aski egokia eskaini digu Juan Martin Elexpuruk".

Bestalde, egileak eta Badihardugu elkarteak aipatzen dute euskalkiz berba egitearen eta idaztearen garrantzia. Horren gaineko arau batzuk eta artikulu luze batekin bukatzen da liburua. "Batua eta euskalkia elkarren osagarri, ez etsai" direla, eta "Deba ibarreko euskalki batua" egiterik ez dutela nahi argitzen dute. Badihardugu elkarteak hau gaineratzen du: "Euskalkia prestigiatu egin behar dugu, eta bide horretan idatzizkoak garrantzi izugarria du. Neurria da aztertu beharrekoa, batuaren eta euskalkiaren arteko oreka".

## Hiztegia salgai dago

**Hiztegia gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute Bergarako udaletxean, 19:00etan. Juan Martin Elexpuru egileak, Jaione Isazelaia irudien arduradunak, Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak, Miren Azkarate Kultura sailburuak eta Ibon Sarasola euskaltzainak aurkeztuko dute, hain zuzen. Izan ere, Sarasolak zuzendu zuen Elexpuruk 1997an EHUn aurkeztu zuen tesia, liburu horren oinarria izango zena. Dagoeneko salgai dago liburua ibarreko liburu-dendetan, 30 eurotan.**

**Lan mardula da. 12.000 sarrera, milaka azpisarrera, esapide eta esaera zahar; gaztelania-euskara hiztegia, deklinabidea, aditza, herriko euskaran idazteko irizpideak, eta 800 argazki, mapa eta koadro batzen ditu 768 orrialdetan.**

**Hiztegia izan zen Juan Martin Elexpururen doktoretza tesiaren gaia, baina orduko lana aberastu eta txukundu egin du. Bergara inguruko herrietako berben zatia, adibidez, berria da; baita gaztelania-euskara hiztegia ere, edo aditz eta deklinabidearen inguruko sailak.**

## Aurretik argitaratutakoak

**Debarroko berbetaren gaineko lan asko plazaratu dira orain arte. Herri edo gune jakin bateko berbak jasotzen zituzten. Juan Martin Elexpururen hiztegiak horietako batzuk aintzat hartzen ditu. Eibar izan da lan mota horietan herri oparoena, eta Toribio Etxebarriaren lanak lagungarri izan zaizkio Elexpururi. Gurean, Bergarako eta inguruko hizketaren gaineko liburu dezente ere badaude; baita Oñati eta Arantzazuko lexikoi bat ere, Kandido Izagirrerena.**

**Liburu bitxiagoak ere badaude, *Berbeta berua* bezalakoa (Badihardugu), lagunarte giroko esamoldeak batzen dituena. Badihardugu elkarteak plazaratu ditu hemengo berbetaren gaineko lan gehiago, eta Koldo Zuazoren *Deba ibarretik euskararen herrira* lanak hiztegitxo bat ere bazeukan.**




*Berbeta berua* (Alberto Telleria).




*Bergarako euskera* (UNED).




*Deba ibarretik…* (Koldo Zuazo).


Lacetti
Auto bera, merkeago.
2004ko stockaren likidazio eskaintzak
IBILGAILU berriak
www.chevrolet.es
GIAUTO Gipuzkoa Autoak
Otaola Etorbidea, 27 - Eibar - Tel.: 943 70 08 41
Karobi industrialdea z/g - Olaberria - Tel.: 943 88 51 50
CHEVROLET

# Otsailak 11-18

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte astelehenean, hilak 14, osasun zentroan, 16:00-20:00.

► **Kurtzebarri eskolak** informazio batzarrak deitu ditu, matrikulazio epea dela eta: Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, hilaren 14an, astelehena, 18:00etan (euskaraz) eta 19:00etan (gaztelaniaz); Bigarren Hezkuntzakoa, hilaren 16an, eguaztena, 18:00etan.

► **Tenporen gaineko hitzaldia** egingo dute Andoni Aizpuru eta Pello Zabalak eguaztenean, hilak 16, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendi elkarteak antolatuta.

► **Aingeru Guarda** eguna ospatuko dute Basotxoko erretiratuek martxoaren 1ean. Taberna Berrin bazkalduko dute, eta izena eman behar da aurretik Basotxon. Zabalik dago baita apirilean Benidormera egingo duten bidaiarako izenematea.

### ARRASATE

► **San Isidro elkarteak** Ohiko Batzar Orokorra deitu du etzirako, domeka, 12:30ean. Zapatuan, hilak 12, hildako bazkideen aldeko meza entzungo dute San Isidroko elizan, 20:00etan.

► **Musakolako igerileku girotuak** itxita egongo dira domekara bitartean, urteko garbiketa egiteko. Medikuak aginduta igerilekura joan behar dutenek Aretxabaletako igerilekua erabiltzeko aukera izango dute, Musakolan eskatuta. Sauna eta lurrun-bainua zabalik egongo dira. Argibideak: 943 77 16 77.

### BERGARA

► **Amodiozko gutunen lehiaketako** sariak banatuko dituzte hilaren 14an, astelehena, San Valentin eguna. Kultura etxean izango da ekitaldia, 19:00etan.

► **Aratuste zapatuan** Nahikari tabernan egon ziren koadrilen argazkiak daude hantxe, eta *www.nahikari.com* webgunean ipintzekoak dira. Interesa dutenek argazkia eska dezakete.

### DEBAGOIENA

► **Aginaga sagardotegian** afaria antolatu du Kilometroak 2005ek. Izena emateko, 35 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 002.004269.7 kontuan hilaren 18a baino lehen.

► **Ikastolen Elkarteak begiraleak** behar ditu uztailean izango diren euskara, ingeles eta frantseseko udalekuetarako. Argibideetarako, deitu 94 435 43 40 telefonora.

► **Zorionak delako kanpaina** aurkeztuko dute ibarreko udalek astelehenean, hilak 14, Eskoriatzako udaletxean, 11:00etan. Ume jaioberrien gurasoei zuzenduta dago eta hizkuntzaren transmisioa da gaia.

### OÑATI

► ***Nerabeak jarrera arriskutsuetatik aldentzeko, gurasoek bete behar duten papera*** delako hitzaldia, urtarrilaren 27an egitekoa zena, gaur, egubakoitza, izango da Zuazola institutuko bideo gelan, 18:00etan. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. eta DBHko 1. eta 2. mailakoen gurasoendako da.

► **Txantxiku ikastolak** aukera ematen die guraso eta seme-alabei 0-3 urte bitarteko umeen gelak ikustera. Bihar, zapatua, izango da, 11:00-13:00. Ikastolan matrikulatzeko epea otsailaren 14tik 25era bitartean izango da, honako ordutegian: 08:15-12:15 eta 14:00-18:30.

► **Laixan elkarteak** bazkide kanpaina egiten dihardu, eta hainbat mahai ipiniko ditu asteburuan Herriko plazan: 12:00-14:00 (zapatuan eta domekan) eta 19:00-21:00 (zapatuan).

► **Baserriko bizimodu eta lanabesen** gaiaren inguruan, irteera antolatu dute Errekalde Herri Eskolakoek etzirako, domeka. Edozeinek parte har dezake. Eskolatik abiatuko dira 10:00etan.

► **Baqueira Beretera** bi eski irteera deitu ditu Aloña Mendik (otsailak 25-27 eta martxoak 11-13). Izenematea zabalik dago Aloña Mendi tabernan, martitzen eta eguaztenetan, 19:30-21:00.

## ANTZERKIA

### ANTZUOLA

► ***Pakitarentzat bakarrik*** antzezlana egingo du Itziar Ituño aktoreak bihar, zapatua, Olaran etxean, 21:30ean.

### BERGARA

► ***Stop al pánico*** antzezlana egingo du Latirili taldeak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

### OÑATI

► ***Ni, arratoia*** umeendako antzezlana jokatuko du Behi Bi's taldeak bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan. Sarrera da 2 euro.

## ERAKUSKETAK

### OÑATI

► **Josu Okina** bergararrak margolan erakusketa du kultura etxean otsailaren 20ra bitartean, egunero 18:30-20:30 ordutegian.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Gomaespuma ikastaroa** emango du Danel Goikoleak zapatuan, hilak 19, udaletxe zaharrean. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 09 70 telefonora.

### ARRASATE

► **Hastapen mailako joskintza** ikastaroa antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak otsailaren 21etik 24ra bitartean. Izenematea zabalik dago hilaren 17ra bitartean.

### ESKORIATZA

► ***Zure egunkaria irakurri*** delako Internet ikastaroa egingo dute astelehenean, hilak 14, KZGunean, 16:00etatik 18:00etara bitartean.

► **Emakumeendako hainbat ikastaro** izango da, Amuska emakume elkartearen eskutik, eta gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna, kultura etxean. Honakoak dira ikastarook: ehoziriak, eskulanak eta olioa, eskulanak, eta larrua eta zaharberritzea.



► ANTZERKIA

### '4 BIHOTZ' LANA ESTREINATUKO DU GUREAN MARKELIÑE TALDEAK

"*4 bihotz* lanean, maitasun zaila izan duen orok (eta maitasuna horrelakoa da, definizioz) keinu bat aurkituko du, batzuetan barre egingo du, eta beste batzuetan hunkitu egingo da". Hitz horiekin gonbidatzen dute Markeliñe antzerki taldekoek euren lan berriena ikustera. Debagoienean lan hori lehenengo aldiz antzeztuko dute. Ohiko maitasun ipuinak protagonistek eperrak pozik jan arte irauten badute, Markeliñek hasiera hor duten istorioak kontatuko dizkigu, errealitatea eta irudimena batzen dituen antzezlan baten. Markeliñe taldeak beste antzezlan bat egingo du oraindik Debagoienean: hain zuzen, hilaren 18an, egubakoitza, *El Decamerón* lana taularatuko dute Elgetako Espaloia antzokian.

**Non:** *4 bihotz*, Arrasateko Amaia Udal Antzokian. **Noiz:** etzi, otsailak 13, domeka. **Ordua:** 19:30.

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzaileen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

Laser bidezko depilazioa
Ile mota bakoitzarentzako laser bat.
Ile kolore bakoitzarentzako laser bat.

• Neodimio Yag laserra
• Alexandrita laserra
• Fotodepilazioa

Ordua eskatuta:
diagnostikoa, proba doan eta aurrekontua.

# MUSIKA

### ARRASATE

► **Sin Red** taldeak rock-blues estiloko kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan, 23:00etan.
► **Herf** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan. Doan da.
► **Balza eta Haitz disko jartzaileek** emanaldia egingo dute bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 03:00etan. Doan da.

### BERGARA

► **Kreator, Ektomorf, Darq Tranquillity eta Hatesphere** taldeek joko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 20:30ean. 20 euro da.
► **DJ Alain eta Kaiet** disko jartzaileek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Go Jam aretoan, 01:00etan. 6 euro da.

### ELGETA

► **Dolce Vita (Arrasate), Azkaiter Pelox (Bergara) eta Lukas Prest (Eskoriatza)** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean, Kilometroak 2005 jaiaren alde eta Danbaka Biraren barne. 3 euro da.

# LEHIAKETAK

### BERGARA

► **Txorimalo lehiaketa** deitu du Jardun elkarteak. Izena eman behar da martxoaren 11 baino lehen. Argibideak: 943 76 36 61 edo 943 76 08 19.

### ESKORIATZA

► **Ibarraundi Museorako izen eta logotipo** lehiaketa deitu dute. Izenak gune berriaren adierazgarri izan beharko du; logotipoak Axtrokiko ontziak izango ditu oinarri. Proposamenak Ibarraundi jauregian utzi behar dira, kartazal baten, martxoaren 8ra bitartean. 300 euroko saria emango dute.

# OSPAKIZUNAK

### OÑATI

► **Santa Eskolastika** eguna dela eta, jaialdia egingo dute Elkar Heziko ikasleek gaur, egubakoitza, ikastetxeko areto nagusian, 18:30ean. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

# Zinema

### ANTZUOLA

■ OLARAN ETXEA

*El enviado*
Egubakoitza: 22:00.

*Zafarrancho en el rancho*
Domeka: 16:30.

### ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

*Whale rider*
Egubakoitza: 22:30.

*Aladino y el príncipe de los ladrones*
Domeka: 17:00.

### ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

*Luna de Avellaneda*
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

*Polar express*
Domeka: 17:00.

*Diarios de motocicleta*
Eguena, zinekluba: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### BERGARA

■ NOVEDADES

*El aviador*
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 19:30.

*El maquinista*
Domeka: 17:00.

*La vida es un milagro*
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### ELGETA

■ ESPALOIA

*La edad de hielo*
Domeka: 17:30.

*Mi vida sin mí*
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI

■ KULTURA ETXEA

*Alejandro Magno*
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

*Dos hermanos*
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

*Silver city*
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### EIBAR

■ UNZAGA

*El grito*
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ RIALTO

*El aviador*
Egubakoitza: 21:00.
Zapatua eta domeka: 18:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 17:15 (egubakoitza), 20:00, 22:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ

■ GURIDI

*Los padres de él*
17:30, 20:00, 22:30.

*Electra*
17:30.

*Miércoles de ceniza*
20:00, 22:30.

*El vuelo del fénix*
17:30, 20:00, 22:30.

*El aviador*
19:15.

*Ray*
17:30, 21:00.

*Closer*
17:00, 22:30.

*White noise - Más allá*
17:00, 19:45, 22:30.

*Million dollar baby*
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

*Los padres de él*
17:30, 20:15, 22:45.

*Bob esponja*
17:30.

*White noise - Más allá*
17:30, 20:15, 22:45.

*El maquinista*
17:30, 20:15, 22:45.

*Electra*
17:20, 19:50, 22:35.

*La búsqueda*
20:15, 22:45.

*2046*
17:15, 20:00, 22:30.

*Los increíbles*
Zapatua eta domeka: 17:15.

*María, llena eres de gracia*
17:15, 20:00, 22:30.

*Mar adentro*
17:15, 20:00, 22:30.

*Conociendo a Julia*
17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

*Descubriendo Nunca Jamás*
17:30, 20:00, 22:30.

*La vida es un milagro*
19:30.

*La casa de las dagas voladoras*
17:30, 20:00, 22:30.

*León y olvido*
17:00, 19:45, 22:30.

*Largo domingo de noviazgo*
17:00, 19:45, 22:30.

*Sólo un beso*
17:30, 22:30.

*Amor idiota*
17:00, 19:45, 22:30.

*Los chicos del coro*
17:30, 20:00, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

*Miércoles de ceniza*
16:00, 18:10, 20:15.

*Llamada perdida*
19:30, 22:20, 00:45.

*Electra*
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

*La masacre de Toolbox*
20:20, 22:30, 00:45.

*El aviador*
16:00, 19:30, 23:00.

*El vuelo del fénix*
16:45, 19:30, 22:20, 01:00.

*Alejandro Magno*
16:00, 19:30, 23:00.

*Obsesión*
20:10, 22:30, 01:00.

*Ocean's twelve*
22:20, 00:50.

*Taxi: derrape total*
16:00, 18:05.

*Los increibles*
17:00.

*White noise - Más allá*
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

*Sky captain*
16:00, 18:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

*Los padres de él*
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

*Million dollar baby*
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

*El aviador*
12:15, 17:00, 20:30, 00:00.

*Electra*
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

*Closer*
18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

*El grito*
18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

*Alejandro Magno*
12:15, 16:30, 20:00, 23:30.

*Obsesión*
20:10, 22:25, 00:40.

*Bob esponja*
12:15, 16:20, 18:20, 20:20.

*Descubriendo Nunca Jamás*
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

*Lemony Snicket*
12:15, 16:10, 18:10.

*White noise - Más allá*
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

*Los increíbles*
12:15, 16:25.

*Ocean's twelve*
22:20, 00:40.

*El niño que quería ser un oso*
12:15, 16:45.

*El vuelo del fénix*
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

*Polar express*
12:15, 16:45.

*La búsqueda*
19:05, 21:50, 00:35.

*Espías supersecretos*
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

*El vuelo del fénix*
12:20, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

*Los padres de él*
12:20, 17:10, 20:00, 22:30, 01:00.

*Electra*
12:20, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

*Bob esponja*
12:20, 16:00, 17:50.

*Largo domingo de noviazgo*
19:45, 22:25, 01:05.

*White noise - Más allá*
12:20, 16:15, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

*Closer*
12:20, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

*El grito*
20:30, 22:40, 01:00.

*El aviador*
19:15, 22:30 (domeka), 23:00 (egubakoitza eta zapatua).

*Alejandro Magno*
12:00, 17:00.

*Descubriendo Nunca Jamás*
12:20, 16:10, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

*Dos espías supersecretos*
12:15, 16:10, 18:10, 20:20, 22:30, 00:30.

*Million dollar baby*
12:15, 16:25, 19:30, 22:15, 01:00.

*Los chicos del coro*
12:10, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.

*Los increíbles*
12:00, 16:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

*El aviador:* ●●●● / *Mi vida sin mí:* ●●● / *Closer:* ●●● / *Mar adentro:* ●●● / *Ocean's twelve:* ●● / *Conociendo a Julia:* ●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### MILLION DOLLAR BABY

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Clint Eastwood
**AKTOREAK:** Clint Eastwood, Hilary Swan, Morgan Freeman.

Film hau boxeoaren munduan girotuta badago ere, ez du bakarrik boxeoari buruz hitz egiten; film handi askotan gertatzen den moduan, istorio nagusiaren barruan istorio eta gai asko sortzen dira. Clint Eastwood-en azken lanak gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak eta bizitzagatik kolpatutako hiru pertsonaiaren artean sortzen diren amodio eta laguntasun loturak azaltzen dizkigu, eta, batez ere, askotan bizitzak gure ametsak desegin nahi dituenean amets horiek betetzeko, eta, etsi gabe, egin behar dugun borrokari buruz hitz egiten digu. Galtzailea ez da amestutakoa lortzen ez duena, hori lortzen ahalegintzen ez dena baizik. Bidaia horretan gertatzen diren bizipenak, ilusioak, ikastaldiak (zoragarria da entrenatzaileak neska gazteari hanken jokoa erakusten dionean, eta esandakoa praktikatzen hasten den eszena) dira benetan garrantzitsuak. Gizakien zuzentasunari buruz ere hitz egiten digu, bizitzak egiten dizkigun segaden aurrean erabaki egokiak hartzeko momentuari buruz, hain zuzen ere.

*Million Dolar Baby* sentimenduez arduratzen da eta benetan hunkigarri eta latzak diren eszenak ditu. Eta eszenak horiek ondo filmatzeko eta islatzeko sendotasuna eta aldi berean leuntasuna behar da, eta Eastwood-ek ezaugarri horiek badituela argi dago. Istorioaren hiru pertsonaia nagusien arteko topaketa guztiak: horietan elkarri esaten diotena, isiluneak, gurutzatzen dituzten begiradak, aditzera ematen dizkigute euren artean sortzen diren emozio-lokarriak. Ia dena benetakoa da filmean: pertsonaiak (Eastwood eta Freeman-en aurpegi zimurtuak pertsonaiei sakontasuna ematen diete), kolpeak, apurtutako sudurrak, malkoak, poztasunak eta tristeziak. Istorioari emandako tonua oso ondo neurtua dago; horrek, aurrera doan heinean, ikuslea harrapatzea lortzen du: pertsonaiak gero eta hobeto ezagutzen ditugu, horiek gizatasuna erakusten dute, euren sentipenak eta erabakiak ulertzen ditugu eta eurekin bat egiten dugu. Hala, filmaren azkeneko zatia, inolako trikimailu eta edulkoratzailerik erabili barik, benetan gure bihotzak astintzen ditu.



ANTONIO ZABALA

OSCAR 2004 . URTEBETEAN ZINEMA DOAN
ZE FILMEK IRABAZIKO DUEN ASMATUTA, URTEBETERAKO DOAKO PASEA IRABAZTEKO AUKERA IZANGO DUZU
1.- El Aviador 2.- Descubriendo Nunca Jamás 3.- Million Dollar Baby 4.- Ray 5.- Entre copas
BIDALI SMS BAT 7744ra TESTU HONEKIN: ABACOSCAR_FILM ZBK_HERRIA
ÁBACO Boulevard eta ÁBACO Lakua. Mezuaren kostua: 0,90 + BEZa . Informazio zabalagoa eta OINARRIAK : www.cinesabaco.com

**SARE INMO f3 inmobiliaria**
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**
- Erdialdean, Iturriotz kalean. 70 m². Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena berrituta. Estreinatzeke.
- Erguin auzoan. 55 m². Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Eguzkitsua. 31.900.000 pta.
- Arimazuri plazan. 67 m². Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. Eguzkitsua. Oso egoera onean.
- Santa Teresa auzoan. 59 m². Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 6 m²ko sotoa. 29.800.000 pta.

**ARETXABALETA**
- 50 m². Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Egoera onean. Eguzkitsua.

**ANTZUOLA**
- 54 m². Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena berrituta. 28.500.000 pta.
- Etxebizitza ederra salgai. Berriki eraikia. 84 m². Hiru logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, despentsa eta garaje itxia. Eguzkitsua. 80 m²ko terrazarekin.

**Etxebizitza berrien promozioa ANTZUOLAn. Zatoz eta erosi!**

**Korosti**
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**Santi Kutz 8 • LEGAZPI**
**Tel.: 943 73 05 25**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- Erdialdea 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 85 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 45m². Berrituta.
- San Pedro 150m². Ondo.
- Zubieta 70 m². Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Garajea aukeran.
- Erdialdea 88 m². Berria.

**ETXEBIZITZA ERRENTAN**
**Jaka:**
- Apartamendua errentan.

**BASERRIAK SALGAI**
- Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

**LOKALAK ETA GARAJEAK**
**Salgai eta errentan.**

**DEBA GARAIA**
INMOBILIARIA
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
**Zarugalde 1 Arrasate**
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
BERGARA:
- Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara
- Masterreka 75 m². Berrituta.
- Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
- Erdialdea 78 m². Berrituta.
- Erdialdea 75 m². Ondo dago.
- Zubiaurre 45 m². Erdi berriztua.

ANTZUOLA:
- 11 etxebizitza berri.

SORALUZE:
- Errekalde 82 m². Ondo dago.
- Rabal 42 m². Ondo dago.
- Ezozi 83 m². Ondo dago.

DEBA:
- 73 m². Itsasora begira.

**BASERRIAK**
- Angiozar 600 m² eta lursaila.
- Elosua 246 m². Egoera onean.

# Iragarki sailkatuak

## 943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

**ARAMAIO**
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO. 626 75 91 04

**DEBAGOIENA**
OKINDEGI BATEAN PERTSONA BEHAR DA. BEHARREZKOA, EUSKARA JAKITEA ETA GIDA BAIMENA EDUKITZEA. 943 76 02 57

**ARETXABALETA**
ILE APAINTZAILEA BEHAR DA. ESPERIENTZIA BEHARREZKOA. BALDINTZA ONAK. ASTELEHENAK JAI. 635 70 66 02

**BERGARA**
Super 8-tik bideora eta edozein bideo fomatotatik dvd-ra kopiak egiten ditugu.
Islada multimedia.
Telleria 6, 6. bulegoa.
943 76 33 56

**BERGARA**
JARDUNEAN DAGOEN TABERNA ERRENTAN EMATEN DA BARRENKALEAN. 943 76 54 75

**ALMACENES ARRASATE**
POSTU HAUETARAKO GAITASUNA DAUKAN PERTSONA BEHAR DA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILE ETA BEZEROARENGANAKO ARRETA. 943 77 00 34

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Hiru gela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. 157.000 euro. Deitu 18:00etatik 22:00etara, mesedez. 943 78 70 75.

**Aramaio.** 174 m². Hiru logela, estudioa eta komuna. Berrituta dago. 945 44 50 12.

**Aretxabaleta.** 180 m² dituen txaleta salgai. Etxe agentziok, ez deitu. 609 48 99 58.

**Arrasate.** 160 m² dituen etxebizitza salgai Uribe inguruan. Kanpoaldera ematen du. Teilatupearekin etxebizitza lotzeko aukera. Jardin pribatua dauka. Bi garaje erosteko aukerarekin. 686 04 65 41 edo 628 53 27 78.

**Arrasate.** Agerre kalean etxebizitza salgai. 649 55 48 10.

**Arrasate.** Sukaldea, egongela, bainugela eta hiru logela. Bi terraza ditu. Erguin auzoan dago. 615 75 04 72.

**Bergara.** Osintxun, 115 m²-ko etxea salgai. Telefonoa: 654 34 25 42.

**Ezkarai.** Egurrezko etxea eta partzela eta erdi salgai Ezkaraiko kanpinean. Gauez deitu. 699 01 44 03.

**Oñati.** Zubillaga auzoan. Beheko solairua. Bi logela, sukaldea, bainugela, egongela, trastelekua eta ganbara. 943 78 32 92.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Hiru logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Guztiz hornituta dago. Bizitzen hasteko moduan. 675 00 56 45.

**Arrasate.** Leintzibar kalean etxebizitza ematen da errentan. Berritua. 943 79 55 26.

**Benidorm.** Apartamentua igerileku eta aire girotuarekin, hondartza ondoan. 666 18 53 87.

**Conil.** Apartamentua alokagai daukat Bateles hondartzaren ondoan. Jantzita dago. 680 44 26 68.

**Costa Sancti Petri** Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan. La Barrosa hondartzatik oso gertu. Telefonoa: 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Peñiscola.** Apartamentua. Hondartzatik gertu. Instalazio pribatuak. Guztiz jantzita. 610 87 83 57.

**Salou.** Apartamentua alokagai daukat Novelty eraikinean, Jaime I pasealekuan. Jantzia. Garajea. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Anai brasildar batzuek etxebizitza bat errentan hartu nahi dute. Telefonoa: 676 29 10 22.

**Bergara.** Bikote gazte bat gara eta etxe bat (jantzia) hartu nahi dugu errentan. 618 08 67 51.

**Debagoiena.** Bikote batek etxebizitza hartu gura du errentan. Telefonoa: 660 98 37 05.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. 615 72 15 17.

**Aretxabaleta.** Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. Arratsaldez deitu. 639 97 74 61.

**Arrasate, Bergara.** Etxebizitza osatzeko pertsona prest. 636 17 67 98.

**Eskoriatza.** Neska bat behar da etxea osatzeko. Unibertsitate inguruan. Merke. 635 74 63 45.

### 106. BESTELAKOAK

**Aretxabaleta.** Logela ematen dut errentan. Telefonoa: 653 70 14 83.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Bolu auzoan garaje bat saldu edo errentan emango nuke. 660 84 39 08.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. 943 77 19 74 edo 635 72 52 65.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu dago. 676 29 10 22.

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Emakumea gertu Antzuola inguruan edozein lan egiteko. 699 31 91 89.

**Aretxabaleta.** Emakume bat etxeko lanak egiteko prest. 635 73 20 36.

**Aretxabaleta.** Etxeak eta atariak garbituko nituzke. 605 72 18 23.

**Arrasate.** Arropak plantxatzeko gertu nago. 9 euro ordua. 943 79 31 66.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu dago astean bi edo hiru aldiz lan egiteko. 943 77 16 01.

**Arrasate.** Emakume euskalduna umeak zaindu, etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak gauez edo egunez zaintzeko prest. Telefonoa: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Esperientziadun kamio eta autobus gidaria lanerako prest. 600 65 33 98.

**Arrasaten** bizi den mutil atzerritar batek edozein lan egingo luke: garbiketa, edadetuak zaindu, sukaldean lagundu... 639 08 30 59.

**Bergara.** Esperientziadun neska batek haurrak zainduko lituzke. 943 76 02 19.

**Bergara.** Irakasle ikasketak egiten ari den neska eskolak emateko prest. Arratsaldeetan umeak zainduko lituzke. 943 76 01 94.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume bat gertu dago etxeko atariak garbitzeko. 943 77 06 74.

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile lanerako prest dago mutil gazte bat. Kontratuarekin. Telefonoa: 943 78 03 59.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingelesezko eskola partikularrak ematen dira. 943 79 03 83.

**Aretxabaleta.** Ingelesezko eskola partikularrak ematen dira. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia handia. Maila guztiak. Hainbat ikasgai. Telefonoa: 630 71 35 83.

**Arrasate.** Lehen Hezkuntzako behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. Telefonoa: 645 73 04 69.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW** 318 I autoa; ordezko piezekin. 616 04 73 42.

**Ford** Fiesta 1.1 salgai. SS-AP. 86.000 km. Ondo dago. 652 76 40 37.

**Gas-Gas Enduro** motoa salgai. 250 cm³. 2002. urtekoa. Matrikulatua. Egoera onean. (Jon). 943 79 23 34.

**Golf GTI** autoa salgai. SS-AF. Ondo dago. Telefonoa: 652 77 71 08.

**KTM** motorra salgai. 125 cm³. Bi motorrendako karroarekin. 656 71 32 47.

**Mitsubishi** Galant 2.5 V6 autoa salgai. Gasolina. Egoera oso onean dago. 600 41 15 07.

**Nissan** Primera autoa salgai. 1992koa. Granatea. Aire girotua, aluminiozko hagunak (llantak), kristal-igogailu elektrikoa. Gasolinazkoa. Ondo dago. 1.500 euro. Telefonoa: 646 09 52 44.

**Opel** Kadett 1.6 S autoa. 1.000 km. Ondo dago. 607 91 15 37.

**Opel** Vectra 2.0 GT autoa salgai. SS-AF. 661 82 40 49 edo 645 71 95 69.

**Garbi S.L.**

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

**Peugeot** 206 1.9. Diesel XRD salgai. Gorria da eta 2000koa. 144.000 kilometro ditu eta oso egoera onean dago. 620 54 57 61.

**Peugeot** 306 automobila salgai, XSdt modeloa. BI-CJ matrikula. Haritz. Telefonoa: 609 36 87 61.

**Renault** Trafic Combi 1.9 dci modeloko furgoneta salgai. 100 zaldi. 2004ko ekainean estreinatuta. 13.000 km. Autokarabana moduan prestatzeko gertu. 17.000 euro. Utzi mezua. 943 71 98 11.

**Suzuki** GS 500 motorra salgai. 635 71 78 46.

**Volkswagen** Passat. 130 zaldi, TDI, High Line metalizatua. Xenonezko faroak, sei CDrendako irratia eta esku libreko kit-a. 10.500 km. 629 43 38 81.

**Yamaha** VR 250 F4T motorra. Matrikula: 3519 BRR. 2002koa. Oso ondo dago. (Jabi). 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

**Yamaha** XT 350 trail motorra salgai. IAT orain pasatuta. Ondo dago. 686 97 62 75.

### 602. EROSI

**Bigarren eskuko** furgoneta bat erosiko genuke. Deitu 19:00etatik aurrera. 943 76 13 78.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurra.** Yorkshire bat da. Hilabete bi ditu eta arra da. 617 80 26 20.

### 704. BESTELAKOAK

**Bergara.** Katakume bat nahiko genuke. Arra bada, hobeto. Primeran zainduko dugu baserrian. 943 76 21 71.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Baserritar** jantzia 2-3 urteko mutikoarendako. 943 79 41 31.

**Bideo jokoak.** Play Station2-rako jokoak saltzen ditut. Ia berriak daude eta egoera onean. Prezio egokia. 687 89 22 21.

**Gitarra** elektrikoa, anplifikadore txiki batekin. 660 98 37 05.

**Oñati.** Animaliak garraiatzeko karro bat salgai. 1.800 euro. 637 58 78 24.

### 802. EROSI

**Txanponak eta billeteak.** Edozein motatako txanpon eta billeteak erosiko nituzke. Bila joan naiteke. 945 44 50 44.

### 806. GALDU

**Bergara.** Teletubbies morea galdu nuen otsailaren 8an, martitzena. Topatzen duenak dei dezala. 620 43 86 86.

**Eskularrua** galdu nuen Aretxabaletako Portasolgo parke inguruan. Eski-mendikoa da. Millet markakoa. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. Eskerrik asko. 629 56 71 76.

**Ezkontza-eraztuna** galdu nuen Urkulun aurreko domekan. Jartzen du 2000.07.22. Josune. 680 63 47 08.

### 807. AURKITU

**Giltza** batzuk aurkitu nituen Arrasateko Larrea plaza inguruan. Opeleko giltzatako bat dute. Udaltzaingoan utzi ditut.



## AIPAGARRI

### Manu Muniategiandikoetxea

BERGARA



Hamargarren aldiz hartu du parte Madrilgo Arco azokan Manu Muniategiandikoetxea artistak bergararrak. Txikitan hasi zen margotzen, eta horretantxe jarraitzen du. Margoak pintatu ez ezik, beste hainbat proiektu izaten ditu esku artean. Orain, adibidez, liburu erotiko bat ari da prestatzen.

### Joakin Lizarralde

ARETXABALETA



Domekan, *Joakinkamom* Egiptoko faraoiaren itxura hartu zuen Joakin Lizarraldek. 82 urte ditu eta Aretxabaletako Aratusteetako lehen saria irabazi du koadrilakoekin: 250 euro. Ilobek diseinatutako trajea jantzi zuen eta ilobak eta euren lagunak inguratuta desfilatu zuen herriko kaleetan.

### Leire Ezpeleta

ARRASATE



Mendiko eskiko Kopan, oraingoz lehena da Leire Ezpeleta. Domekan izan zuten lehen lasterketa Luz Ardiden mendian, eta hura izan zen emakumezkoetan onena. 170 lagunek hartu zuten parte guztira, eta, tartean, baita Debagoienekoek ere. Maila bikaina erakutsi zuten, gainera.

## HILDAKOAK

**Angel Fernandez Ezkerra.** Ezkoriatzan, urtarrilaren 19an. 80 urte.
**Rosario Irastortza Albisua.** Antzuolan, urtarrilaren 26an. 91 urte.
**Fca. Ortensia San Justo Crespo.** Arrasaten, 3an. 67 urte.
**Luisa Arregi Egidazu.** Arrasaten, otsailaren 3an. 88 urte.
**Felipe Jausoro Galdos.** Aretxabaletan, otsailaren 4an. 89 urte.
**Victoria Martialdai Maisonave.** Arrasaten, 5ean. 75 urte.
**Victoriano Pascual Gil.** Arrasaten, otsailaren 6an. 74 urte.
**Carmen Pavo Merino.** Arrasaten, otsailaren 7an. 84 urte.
**Eulogio Uriarte Madinabeitia.** Oñatin, otsailaren 7an. 77 urte.
**Felipa Ugalde Iturbe.** Arrasaten, otsailaren 7an. 84 urte.
**Jesus Mujika Garitano.** Bergaran, otsailaren 7an. 83 urte.
**Jon Galarza Zulueta.** Oñatin, otsailaren 7an. 94 urte.
**M. Gloria Alvarez Parra.** Oñatin, otsailaren 8an. 54 urte.
**Pedro Larrinaga Gaztañaga.** Arrasaten, otsailaren 8an. 82 urte.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero
18.500 etxetan.

Eskelen prezioa:
82 €.



**Felisa Larreategi** eta **Carlos Zengotitabengoa** bergararrek 50 urte beteko dituzte ezkonduta bihar, zapatua. 1955eko otsailaren 12an ezkondu ziren, Bergarako Santa Marinako elizan. Etxekoekin batera ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Zorionak, familiaren partetik!

---

**ESKER ONA**

## Nieves Imaz Bastarrika

Antonio Ubierna Imazen alarguna

Arrasaten hil zen 2005eko urtarrilaren 28an, 87 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko otsailaren 11n.

**ESKER ONA**

## Juan Arkauz Murgiondo

Arrasaten hil zen 2005eko otsailaren 2an, 93 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
batez ere Joxe eta Kontxitari,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2005eko otsailaren 11n.

**ESKER ONA**

## Jesus Mujika Garitano

Bergaran hil zen 2005eko otsailaren 6an, 83 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko familiakoen partez.

Bergaran, 2005eko otsailaren 11n.

**ESKER ONA**

## Jose Antonio Alvarez Etxeberria

*Joxan*

Arrasaten hil zen 2005eko otsailaren 4an, 61 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2005eko otsailaren 11n.

**ESKER ONA**

## Jose Ramon Azurmendi Zabaleta

Bergaran hil zen 2005eko otsailaren 2an, 64 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko familiakoen partez.

Bergaran, 2005eko otsailaren 11n.

**URTEURRENA**

## Lorenzo Arrizabalaga Aizpurua



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 13an,
13:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

**URTEURRENA**

## Roman Lizarralde Elola



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 13an,
13:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

**URTEURRENA**

## Iñaki Irizar Leanizbarrutia



Lehen urteurreneko meza domekan,
otsailaren 13an, 12:30ean, Aretxabaletako Azatza
auzoko San Juan elizan.

—

*Hosto bat erori zen. / Eta bi. / Eta hiru.*
*Ilargian arrain bat ari zen igerian.*
*Urak ordubete egiten du lo*
*eta Itxaso zuriak ehun.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

**URTEURRENA**

## Agapito Errasti Ozaeta



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 13an,
11:00ean, Arrasateko Garagartza
auzoko San Migel elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## IRAGARPENA

**ZAPATUA, 12** / Max.: 12º / Min.: 7º



Zerua hodeitsu egongo da eta euri arina egingo du. Mendebaleko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan. Tenperatura egonkor mantendu edo gutxi igoko da, batez ere minimoa. Araba hegoaldean izozte ahulak izan daitezke.

**DOMEKA, 13** / Max.: 10º / Min.: 5º



Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da. Euri arina egingo du. Elur-maila azken orduetan 1.000 metro inguruan kokatuko da. Tenperatura minimoa gutxi edo gutxika-gutxika igoko da barnealdeko zenbait lekutan. Tenperatura maximoa gutxika-gutxika jaitsiko da.

## WWW.EUSKALMET.NET

# Euskalmet, zure zerbitzura

Erabiltzaile pribatuei, enpresei eta erakundeei meteorologiaren gainean informazioa emateko sortu zuten Euskalmet meteorologia eta klimatologia agentzia, 1990ean.

Eguraldiak, eta meteorologiak orokorrean, gero eta garrantzi handiagoa du gure gizartean. Arrazoi horregatik sortu zuen Euskalmet Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak. Arabako Teknologia Parkeko Albert Einstein kalean du egoitza. Handik egiten dituzte egunero eguraldi iragarpenak eta interpretazioak.

Euskalmetek hainbat helburu ditu: informazioa denbora errealean eskainiko duten estazio automatikoen sarea garatzea, lortutako informazioa erabiltzaileen esku jartzea eta ikerketa bultzatzea, besteak beste. Hori guztiori egiteko, hainbat zerbitzu ematen ditu. Internetez, nahiz bestela, datu meteorologikoak eskaintzen ditu. Gainera, datu horiek oinarri hartuta klimatologia egiten du. Horrez gain, eguraldiaren iragarpenak egiten ditu hainbat mediotan, tartean baita Goienakoetan ere.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:

euskalmet
euskal meteorologi agentzia

aurrera doan herria — un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA — DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

www.euskalmet.net

## HITZGEZIDUNAK

**Luma**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | Apala / Mehe, estu | ▼ | Bort, sasiko / Mintza | ▼ | Bigun, ezti |
| | | | ➤ | | ▼ | | ▼ |
| | | | Erraz / Herri nafarra | ➤ | | | |
| *Izena / Nehola | ▼ | Bete / Nahaste | ➤ ▼ | | | | |
| ➤ | | ▼ | | | Leku atzizkia / *Deitura | ➤ | |
| Ardi hitz-elkartetan / Ezetz esan | ➤ | | | Lawren-tzioa / Gaixotasun infekzioso | ➤ ▼ | | Haurtzaro, seintzaro |
| ➤ | | | | ▼ | | | ▼ |
| Bat / Onomatopeia | ➤ | Euskara ikasteko / Baranda babesgarri | ➤ | | | Mende-baldea / T birritan | ➤ |
| ➤ | | ▼ | Karta-joko / Zaren hori | ➤ | | ▼ | |
| Ohizko, normal | Hots, zarata / Frantziako kaleetan | ➤ | ▼ | | | | |
| ➤ | ▼ | | | | | Area / Adia, auhena | ➤ |
| Azken eta 2. bokalak / Telebista emanaldi | ➤ | | Infin., ozartu / Elektroia | ➤ | | ▼ | |
| ➤ | | | ▼ | | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN

**Kike Amonarriz**



**HAUTESKUNDEAK KORSIKAN**

Korsikako kostaldeko hiri ederrenetako bat da Solenzara eta gaur, uharte guztian bezala, hauteskunde eguna da bertan.

Korsikan ohikoa den legez, arratsaldeko 7etan itxiko dira hauteskundemahaiak. Laster jakingo dira emaitzak.

Segundo batzuk besterik ez da falta zazpiak jotzeko. Une horretan, Pasquale estu eta larri sartu da berari dagokion hauteskunde-mahaia dagoen eskolara, boza emateko asmoz:

– Beranduegi al da botoa emateko? —galdetu dio mahaiko presidenteari.

– Hori... Nori eman behar diozun botoa...

**LECH WALESA OKULISTARENEAN**

Ikusmena galtzen hasia dela eta, oftalmologoarengana joan da Lech Walesa, Poloniako buruzagi sindikal eta lehendakari ohia.

Kontsultara sartu eta medikuak aulki batean esertzeko esan dio. Parean, hormatik zintzilik, letra lodiak dituen taula handi bat dago, okulista guztiek darabilten horietako bat.

Goiko lerroa honako hizkiek osatzen dute: BROZMENSWINSKI.

Okulistak letra lerro osoa seinalatu dio, ziri luze batekin lerro hasierako B hizkia ukituz:

– Irakur dezakezu hori? —galdetu dio okulistak—.

– Bai, noski —erantzun dio zalantza izpirik gabe Walesak—. Ni poloniarra naiz!

## SOLUZIOAK

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | • | A | • | B | • |
| | | | A | R | G | A | L |
| | | | • | A | I | S | E |
| • | I | • | O | S | A | T | U |
| I | N | O | L | A | • | A | N |
| • | A | R | T | • | L | R | • |
| E | Z | E | Z | T | A | T | U |
| • | I | • | A | E | K | • | M |
| T | O | K | • | T | U | T | E |
| • | • | A | Z | A | N | T | Z |
| A | R | R | U | N | T | • | A |
| • | U | E | • | O | Z | A | R |
| T | E | L | E | S | A | I | O |



Otsailaren 14a: 031 zozketa

## Harpidedunen txokoa

# Sariak astero!

Astelehenean, otsailak 14, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!**

## Otsailaren 14ko sariak




- Otsailaren 18an Markeliñe taldearen **'DECAMERON'** antzerkirako lau gonbidapen. Saridun bakoitzari bi. Elgetako Espaloia antzokian.
- Otsailaren 19an Elgetako Espaloia antzokian egingo den **KORRIKA MUSIKALA** kontzerturako bi gonbidapen.
- **'MOKOGORRI'**, 6 urtetik gorakoendako bi puzzle (saridun bakoitzarendako bat).

**Eibar-Ejido** futbol partidua ikusteko lau sarrera; saridun bakoitzari bi emango zaizkio.




## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

**Kuota:**

**Harpidetza kuota, 35 euro**

**2005 osoko** harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

030 zozketa
saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**

**Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).**

- Ekin fisioterapia zentrua (Aretxabaleta)
- Rosario Yarza Madariaga (Antzuola)

**KIKE AMONARRIZEN '888 TXISTE' liburua, Argia-ren eskutik.**

- Arantza Fdz. de Ganboa Landa (Arrasate)

**2005eko ARGIAren 6 egutegi**

- Mari Tere Jausoro Lazkano (Oñati)
- Leire Zelaia (Oñati)
- Jose Martin Elizaran Egidazu (Arrasate)
- Juan Pedro Eguren Larrañaga (Bergara)
- Amaia Zabaleta Irazabalbeitia (Bergara)
- Andoni Zubia (Eskoriatza)



## 'Ilunpean'

EGUBAKOITZA 11 / **21:30 eta 23:00**

### Aitor Elkoro pilotariari egindako elkarrizketa

Aitor Elkoro elkarrizketatuko du gaur, egubakoitza, Oihana Elortzak *Ilunpean* saioan. Elgetako pilotariak eguneroko bizimoduaz eta, nola ez, pilota kontuez berba egingo du GOITBn. Lehen emanaldia 21:30ean, eta bigarrena 23:00etan.



## 'Marrazki bizidunak'

EGUNERO / **13:50 eta 20:30**

### 'Animaliakeriak' marrazki bizidunei ere, agur!

Datorren astean ikusiko dituzue *Animaliakeriak* marrazki bizidunen azken kapituluak. Eguenean esango digute agur. Gero, *03 Patrulla*-k hartuko du lekukoa. Marrazki bizidun berriotan ere, animaliak dira protagonistak.



## 'Ordubetez'

MARTITZENA 15 / **21:30 eta 23:00**

### Europako Konstituzioa, martitzeneko mahai-inguruan

Hilaren 20an bozkatuko da Europako Konstituzioa, eta GOITBk eztabaidarako tartea irekiko du aurrez. Hala, martitzenean, mahai-ingurua egingo dute *Ordubetez* saioan. Gorka Etxaberen gidaritzapean, hainbat adituk iritzia emango dute.



## 'Eguraldia'

EGUNERO / **Albistegietan**

### Euskalmetek eskainiko du eguneroko eguraldi tartea

Goienak lankidetzarako hitzarmena sinatu du Euskalmet agentziarekin. Horren arabera, Euskalemetek eskainiko du egunero eguraldi tartea *Berriak* saioan. Gainera, eguenetan, meteorologiak tarte berezia izango du informatiboetan.

## TELEBERRIAK

### T5eko 'Motivos personales' telesaila indartsu

Tele 5 kateko bi saio izan dira martitzeneko ikusienak Euskal Autonomia Erkidegoan: *Aquí hay tomate* eta *Motivos personales* intrigazko telesaila. Bigarren kapitulua eskaini dute oraingo astean eta %30,6k ikusi zuten, gaueko saiorik ikusiena izan zen.

### Telebista gehiago, haurrak bortitzago

Madrilgo zenbait ikastetxetan egindako ikerketa baten arabera, telebista eta bideo-joko gehiago kontsumitzen duten umeak bortitzagoak dira. 9 eta 16 urteko 2.322 ikasleri egindako ikerketaren arabera, astean ordu erdiz irakurtzen dutenak eta etxeko-lanak egunero egiten dituztenak, berriz, lasaiagoak dira.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Otsailaren 11tik 17ra

goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 11 | ZAPATUA 12 | DOMEKA 13 | ASTELEHENA 14 | MARTITZENA 15 | EGUAZTENA 16 | EGUENA 17 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:50 **Marrazki bizidunak:** - Fernando Amezketarra - Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Behazulo**<br>15:15 **Oinak izarretan**<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:**<br>21:00 **Ilunpean:** Aitor Elkoro<br>21:30 **Gure lanbide zaharrak**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Ilunpean**<br>23:00 **Gure lanbide zaharrak**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 11:05 **Behazulo**<br>11:35 **Danbaka:** Split77<br>12:35 **Marrazki bizidunak:** - Fernando Amezketarra<br>13:40 **Marrazki bizidunak:** - Lazkao Txiki<br>14:00 **Oinak izarretan**<br>14:30 **Filma:** Odisea<br>15:25 **Ilunpean**<br>16:00 **Debarri:** Elgeta<br>17:00 **Bi eta bat**<br>17:30 **Klip@**<br>17:45 **Behazulo**<br>18:15 **Danbaka:** Split 77<br>19:15 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak<br>20:00 **Aratusteak 05**<br>20:30 **Emisio amaiera** | 11:00 **Filma:** Odisea<br>12:00 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak<br>13:10 **Danbaka:** Split 77<br>13:55 **Oinak izarretan**<br>14:30 **Gure lanbide zaharrak**<br>15:00 **Filma:** Odisea<br>15:50 **Aratusteak 05**<br>16:20 **Debarri** Elgeta<br>17:20 **Bi eta bat**<br>17:50 **Marrazki bizidunak:** Fernando Amezketarra<br>18:50 **Marrazki bizidunak:** - Lazkao Txiki<br>19:10 **Ilunpean**<br>19:40 **Klip@**<br>20:00 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** - Fernando Amezketarra - Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Ilunpean**<br>15:15 **Gure lanbide zaharrak**<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** - Fernando Amezketarra - Lazkao Txiki<br>21:00 **Harmailatik**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Harmailatik**<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak<br>21:00 **Ordubetez:** Eurpar Konstituzioaren gaineko mahaingurua<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Ordubetez**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** - Fernando Amezketarra - Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Ordubetez:** Eurpar Konstituzioaren gaineko mahaingurua<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak**<br>21:00 **Bi eta bat**<br>21:30 **Mandio:** Arantzazu<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Bi eta bat**<br>23:00 **Mandio**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Bi eta bat**<br>15:15 **Mandio:** Arantzazu<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak<br>21:00 **Behazulo**<br>21:30 **Oinak izarretan:** Annapurna I<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Behazulo**<br>23:00 **Oinak izarretan**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** |
| 21:00<br>**Ilunpean** | 20:00<br>**Aratusteak** | 15:00<br>**Filma** | 21:00<br>**Harmailatik** | 21:00<br>**Ordubetez** | 13:50<br>**Fernando Amezketarra** | 21:30<br>**Oinak izarretan** |

**GOIENA TELEBISTA /** Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**



# 4x4

## aukera zabalena

**Saltzeko eta erosteko**
•
**Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu**
•
**Ia berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)**

ZABALDU BERRIA!

4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net





# Elkarbizitzarako prestatzen

Maider, Jone txiki-txikia denetik saiatzen da bere irudimena eta sormena lantzen, ikusi eta ikasi nahia pizten; eta jolasen bidez, elkarbizitzarako prestatzen. Gaurko haurrak, biharko gizartea.

**matrikulazio epea zabalik: otsailaren 14tik 25ra.**

Informa zaitez!
902 11 20 25

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
*geurea, zeurea*

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2005eko otsailaren 11


*Atzeskua*

OIHANA ELORTZA

# Aitor Uranga 'Kirru'/ Tabernari ohia

**Zenbat urte egin dituzu lanean tabernako barraren barruan?** 18 bat, bai. Azken 15-16ak, gainera, hementxe, Iturriotzen.

**Eta bezeroek merezitako agurra egin dizute.**

Oso ondo pasatu nuen eta hunkitu ere egin nintzen. 60 bat lagun batu ginen sagardotegi batean, tabernan egindako bezero eta lagunekin osatu dudan familia handia. Tamalez, ez ginen egon guztiok: batzuek ezin izan zuten joan hemen ez daudelako eta ezin zutelako, eta faltan igarri nituen.

**Zergatik erabaki duzu orain altzariak muntatzen hastea?**

Lehendik ezagutzen nituen, eta lana eskaini zidatenean onartzea erabaki nuen, besterik gabe. Laster aita ere izango naiz, eta...

**Lan berrian asentatuko duzula burua esan nahi duzu?**

Ez, ez, burua aspaldi asentatu nuen.

**Nork igarriko du nor faltan: taberna zuk, ala bezeroek zu?**

Ez dakit ni faltan igarriko nauten, baina nik taberna eta ohiko bezeroak bai. Lagun asko egin ditut barraren atzean lanean ibili naizen bitartean.

**Aurrerantzean ere heavya entzun nahiko dute bezeroek.**

Egia da niri asko gustatzen zaidala heavya eta baita rocka ere, baina era guztietako musika jarri dut beti, e? Ez heavya bakarrik.

**Eta telebistako saskibaloi partiduak?**

Horiek tabernara datozenek eskatuz gero jartzen nituen, baita zapatu eta domeketako futbol partiduak ere. Nik ez dut atsegin kirolak telebistaz ikustea.

**Iturriotzeko bezero izaten jarraituko duzu?**

Ez badute taberna askorik aldatzen, bai.

**Aurrerantzean tragoek zenbat balio duten galdetu beharko duzu.**

Orain arte ere egiten nuen beste taberna batera joaten nintzenean. Nire lana amaitzen nuenean, zeharo ahazten nituen taberna barruko kontuak eta beti galdetzen nion tabernariari ea zenbat ordaindu behar nion eskatutakoa.

**Horrenbeste urte igaro eta gero, betiko utzi duzu tabernari izatea?**

Ez nago hain ziur. Lanbidez aldatzeko aukera izan dut orain eta aprobetxatzea erabaki dut, baina oraindik urte mordo bat falta zaizkit erretiroa hartzeko, eta auskalo, akaso egunen batean berriro ikusiko nauzu barraren barruan.

**Bitartean, etor dadila dagoen tabernaria kanpoan utzi duzun edalontzia jasotzea.**

Hori da, nik ere makina bat aldiz egin dut-eta lan hori tabernari ibili naizen urte horietan guztietan.

**Ondo moldatu zara lan berrira?**

Otsailaren hasieran utzi nuen taberna, eta egun gutxi daramatzat altzariak muntatzen, baina gustura hasi naiz, behintzat.




**"Taberna ez badute askorik aldatzen, Iturriotzeko bezero izaten jarraituko dut"**

**"Orain arte ere, beste taberna batera joaten nintzenean, beti galdetzen nion tabernariari eskatutakoaren balioa"**

**"Urte asko falta zait erretiratzeko, eta, akaso, barrara bueltatuko naiz oraindik"**

► *Arrasate / 36 urte / Altzari muntatzailea*

## PIPERRAUTSA

*Jon…*

Agirre, debagoiendarra, 62 urte. Atxilotua 39 zituela eta harrezkero preso, Malagan. Zigorraren hiru laurdenak bete zituen duela hamar urte, legez etxean behar zuen azken hamar urteotan. Gainera, gaixo larriak ditu Jonek, legearen arabera kartzelatik irteteko bestekoak. Horregatik ere etxean behar luke Jonek aspaldian, baina preso irauten du Malagan. Bere askatasuna eskatzeko herri ekimena sortu da, eta manifestazio jendetsua izan zen larunbatean Arrasaten.

Joan den astean lege kontuak ibili nituen, 18/98 sumarioa dela-eta. Gaurkoan ere lege bortxaketaz aritu nintekeen, legez eskubidea baitu Jonek etxean egoteko. Eta ondo dihardu legea bete dadin ari den ekimenak. Horren osagarri, aipa dezadan nik gizatasuna.

Jon Agirre gaur kartzelan egotea da, nagusiki, gizatasun falta. Gatazkak erraz eta erruz eragiten du krudelkeria, eta hau bera bihur daiteke gatazkaren eragile. Gurpil zoroan, galdu ere galtzen da gatazkaren abiapuntua, arazoaren sorburua, eta haren lekua hartzen du mendekuak. Horren aurka berreskuratu behar da gizatasuna: gurpil zoroa apurtzeko, gatazka bideratzeko, elkarbizitza eraikitzeko. Hain zuzen, gizakion parte ona ateratzen duelako gizatasunak.

Alde guztien gizatasunak erraztu egingo luke ez zapuztea bizi dugun aukera historikoa. Oinarrizko gizatasunak ekarri behar luke Jon Agirre Malagatik etxera.

MIKEL IRIZAR




Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.
**Labegaraieta Industrialdea BERGARA.**
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.



